

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

ESKOLA ETA FAMILIA ARTEKO ELKARRIZKETETARAKO KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIEN INBENTARIOA

ERANSKINAK

Egilea: Nerea Céspedes Fernández

Zuzendaria: Mikel Irukieta Quintian

Leioan, 2018ko maiatzaren 29an

EGILEAREN ONIRITZIA

A U R K I B I D E A

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Irakasle aditu eta guraso arteko 1go elkarrizketa.....	3
2. ERANSKINA: Irakasle aditu eta guraso arteko 2. elkarrizketa.....	16
3. ERANSKINA: Irakasle aditu eta guraso arteko 3. elkarrizketa.....	28
4. ERANSKINA: Irakasle ez-aditu eta sasi-guraso arteko 1go elkarrizketa.....	40
5. ERANSKINA: Irakasle ez-aditu eta sasi-guraso arteko 2. elkarrizketa.....	50
6. ERANSKINA: Irakasle ez-aditu eta sasi-guraso arteko 3. elkarrizketa.....	59
7. ERANSKINA: Ikasle-fitxak.....	65

E R A N S K I N A K

1. ERANSKINA: Irakasle aditu eta guraso arteko 1go elkarrizketa.**Data:** 2018/03/19**Iraupena:** 18:05

Elkarrizketa egiteko arrazoia: Ikerketa-lan honetarako ikergaia sortzea, eta bide batez, 4 urteko haurraren bigarren hiruhilabeteko ebaluazioa egitea.

Parte-hartzaileak: Tutorea **(T1)** eta ama **(G1)**.

Elkarrizketaren kokapena:

**TRANSKRIPZIOA:**

1 (T1): Bueno **(G1)**, arratsalde on!

2 (G1): Arratsalde on **(T1)**!

3 (T1): A ver, bueno, kontatzen deusut apurtxu bat zelan ikusten dot **(H1)**... Itxaron, eh? Zabalduko dot bigarren hiruhilabetea... **(H1)**! Zuk zelan ikusten dozu, **(G1)**?

4 (G1): A ver, lasaiago bai.

5 (T1): Askoz ere lasaiago.

6 (G1): Baina gero jarrera aldetik eta holan... Ia zelan dabilen

7 (T1): Ez, oso ondo dau, askoz be lasaiago. Lanean be askoz hobeto dau. Egia da egun batzuk dekozela hor...

8 (G1): Bai, ez? Gora eta behera.

9 (T1): Baina 3 urteko gelan eukazan gehiago, ze 3 urteko gelan, bai egia da blokeatzen zala igual... Ez pilo bat, baina igual apurtxu bat gehiago, orain mas o menos... Osea alde hori ikusten dot hobetu dauala, ez?

10 (G1): Lasaiago dago.

11 (T1): Edo bai, lasaiago dau, edo igual kapaz da be bai... Ez dakit noiz izan zan aurrekoan... Bueno cobayak eroan ebazanean...

12 (G1): Cobayen astean... Es que zelan egon zan... Zelan egon zan bariku horretan...

13 (T1): Hor azkenean ikusten dot hori: urduri dauenean kostatzen jako igual gehiago kontrolatzea emozioak edo... Orduan blokeatzen da apurtxu bat gehiago. Baina pasa dan urtekoagaz konparatuta, ez zan askorik bez pasa dan urtean, baina...

14 (G1): Bai, baina blokeatzen da pila bat, horretan bai, eh?

15 (T1): Ez, baina bueno, bai ikusten dot aurten ikasi dauala.

16 (G1): Baina etxean be igertzen deusagu.

17 (T1): Hobetu dauala, ez?

18 (G1): Hobetu dauala... Baina dekoz bere momentuak, eta...

19 (T1): Bere momentuak... Bai, bai...

20 (G1): Blokeatu egiten dala... Negar batean...

21 (T1): Baina nik uste dot, ipinten dala edo urduri... Edo konturatzen dala igual nonoz... Ba fitxaren bategaz, ez? Aurrekoan be komentatu neutsun fitxa bategaz... Ikusi eban fitxa... Ez dakit izan bazan igual gogo faltagatik, egia esan ez zan izan fitxa errez erreza eh... Gainera uste dot izan zala lehenengo fitxa egin genduana. Zan holango karratutxu bat (karratua eskuekin adierazi) eta karratuaren barruan zenbakiak: pues 1 zenbakia gorriagaz, 2 zenbakia berdeagaz eta holan... Eta...

22 (G1): Eta ezetz, ez?

23 (T1): Egin eban chapuza... Esan neutsan: “(H1)...”.

24 (G1): Es que oso burugorria da tio.

25 (T1): Claro, ez... Eta nik esaten deusadana da:” (H1), laguntza eskatu, blokeatzen bazara, edo ez badakizu, edo kostatzen bajatzu etorri nigana eta laguntza eskatu eta lagunduko zaitut”.

26 (G1): Baina horretan... Nik ez dakit lotsagaitik, edo zer dan...

27 (T1): Lotsa da, lotsa da. Lotsa, eta bueno, apuro apur bat, ez? Orduan dino: “Bueno pues...”.

28 (G1): Ya...

29 (T1): Azkenean, ez dakit, urteten jako inpultso hori. Baina bueno, gero egin eban bigarren aldi baten, egin eban askoz hobeto, egon zan be lasaiago.

30 (G1): Lasaiago...

31 (T1): Egin neban berba beragaz, egin eban lasaiago... Baina bueno, hori... Ba azkenean (G1) badakigu. Hobetzen joango da.

32 (G1): Bai, bai, bai, bai. Oso burugorria da, eta azkenean kostatu egiten jako.

- 33 (T1):** Eta gero, jo, egia esan, lanean, oso ondo, oso ondo.
- 34 (G1):** A ver, guk etxean igjerri deusagu be bai. Igual (A1) jartzen danean lanean edo zeozer egiten, bera be ipinten da, zenbakiak egiten...
- 35 (T1):** 3 urteko gelan ez jakon gustatzen margotzea, erratzen ez banaz, ez?
- 36 (G1):** Ez, ez...
- 37 (T1):** Eta orain...
- 38 (G1):** Koloreztatzea bai, baina gero marrazki libreana...
- 39 (T1):** Bueno egiten dauz gero eta marrazki politagoak.
- 40 (G1):** Hori bai! Hori be bai (A1)(r)(en)gatik, eh?
- 41 (T1):** Bai, bai. Bueno, igual egia da ez jakola gustatuko hainbeste margotzea, baina bueno, behintzat...
- 42 (G1):** Ez, baina hasi da gehiago, hasi da gehiago.
- 43 (T1):** Bueno, behintzat margotu ondo egiten badau...
- 44 (G1):** Ni horretan be ez naz abila, eh?
- 45 (T1):** Ya...
- 46 (G1):** Eta (A1) eta (H1) azkenean euren kabuz ibili dira.
- 47 (T1):** Hori da, hori da... Azkenean... Bueno, berak be badaki egin behar dauala eta bueno, pues behintzat saiatzea apurtxu bat...
- 48 (G1):** Bale.
- 49 (T1):** Eh? Eta saiatzen da eta ondo egiten dau. Orduan bueno, hemen mas o menos hori... Ba autonomia oso ondo, egia da beti izan dala super autonomia.
- 50 (G1):** Bai.
- 51 (T1):** Jantzi egiten da bakarrik, kremaierak be bai...
- 52 (G1):** Badoa janzten bai.
- 53 (T1):** Ardurak be bai, oso ondo. Agenda ataratzen dau motxilatik: ondo. Bere gauzetaz...
- 54 (G1):** Bai, horretan bai, azkenean serioa da eta...
- 55 (T1):** Hori da! "Hau gordeko dot ez daiten galdu eta...". Gero, zer gehiago? Ziurtasuna, ondo, ondo. Gero korroan adi egoten da, momentu batzuetan ahal da despistatu, baina bueno, dentro de lo normal, osea...

56 (G1): Bale.

57 (T1): Gero, ahalegina ondo. Badakit alde horretatik, egin ahal dauala...

58 (G1): Apurtxu bat gehiago...

59 (T1): Apurtxu bat gehiago... Ez da alpertzua, ze azkenean ondo egiten dau lan, baina batzuetan ba hori... Nahi dauala apurtxu bat arinago amaitu? Ba egiten dau apurtxu bat arinago. Baina azkenean **(G1)**, normala...

60 (G1): Bai, bai, bai... Es un acelerau horretarako, bai, bai.

61 (T1): Baina bueno, ondo egiten dau lan, ondo egiten dau lan.

62 (G1): Bai.

63 (T1): Gero, lanak nahiko txukun. Batzuetan be bai egunaren arabera...

64 (G1): Hori da, egunaren arabera, ez?

65 (T1): Bai.

66 (G1): Ze gero berak be badeko bere ordena, izena ipini, ez dakit zer... Osea jarraitzen dau orden batean, baina... Segun eta zelan dagoan momentu horretan... Igertzen jako.

67 (T1): Bai, eta nonoz esan dotsat: “**(H1)**, baina holan ez egin”. Igual fitxaren bat, ez? Lotu edo margotu, bardin deusta. Eta igual nonoz, ba titulua kendu, edo marra potolo-potoloa... Ez da bakarra, ze beste batzuei be esaten deusiet: “Jo hori ez egin, ze azkenean da apurtxu bat zikintxua”. Egia da ni be bai alde horretatik nazela lar exigentea, eh?. Bueno, batzuetan egiten badabe apurtxu bat holan ez deusiet esaten, baina errepikatzen bada askotan esaten deusiet: “Jo ba egin apurtxu bat finago, ze bitu holan margotu dozu ereduaren gainean eta...”.

68 (G1): Zu fuerte!! (Barreak).

69 (T1): Eh... Gero zer gehiago? Arauak ere ondo. Askoz be lasaiago dago, eta bueno, nik uste dot hor be bera be konturatu dala. Osea hasieran igual bai hasarratzen nintzan beragaz apurtxu bat gehiago...

70 (G1): Ya... Bai, bai. Etxean eta, **(H1K1)**(r)en kontuagaz eta, be bai askotan esaten dau, eh? Azkenean nik badakit hor kanpoko lagunak dirala be bai, eta **(H1K1)** dan modukoa, eta askotan bere atzetik doala... Baina bueno, behintzat horretan be lasaitu da, eh?

71 (T1): Bai.

72 (G1): Bai.

73 (T1): Nik be ikusten dot...

74 (G1): Edo igual desberdindu egiten dauzala momentuak.

75 (T1): Ez, gelan behintzat... Gero jolasketan egia da ez nazela kontziente, ez dakit zelan egoten dan...

76 (G1): Bai, bueno.

77 (T1): Baina gelan bai, a ver (H1K1)(e)gaz egoten da, baina (H1K2)(e)gaz be egoten da asko... Osea beste umetxu batzuekin be egoten da.

78 (G1): Bai ze (H1K2), (H1K1) eta bera dira anaiak....

79 (T1): Ai! Hori esaten dau?

80 (G1): Si... Anaiak dira. Gomez, Gomez, Garcia.

81 (T1): Bai, hori da, hori da.

82 (G1): Orduan: "Gara anaiak ama!". Eta ni: "Bai, bai, jarraitu...".

83 (T1): Claro, claro... Hombre... Logika jarraitu dau, ez (G1)? (Barreak).

84 (G1): Bai, bai, bai... Baina joe, que tio.

85 (T1): Ez, baina egia da igual (H1K2) sartu danez... Mas o menos hor...

86 (G1): Lasaiagoa da, ez?

87 (T1): Bai, bai, bai... Eta bueno, bestea bere airera doa, ze bestea da guindillita bat.

88 (G1): (H1K2) lasaiagoa da, hori bai igerri dot.

89 (T1): Bai.

90 (G1): Eta aspaldi honetan gainera, dabil be bai neskekaz asko jolasten.

91 (T1): (H1K5)(e)gaz...

92 (G1): Bai, (H1K5), (H1K6) batzutan... Eta (H1K7)(r)i buruz be bai egiten doste berba.

93 (T1): Ah, bai? Ah, bitu. (H1K5) bai, eta (H1K6) be egoten da saltsa horietan. Baina bitu, (H1K7)...

94 (G1): Orduan, nik be bai ikusi dot hori bere onurarako.

95 (T1): Ya, ya, oso ondo.

96 (G1): Orduan, ba a ver jarraitzen dauan horrela.

97 (T1): Seguro baietz... Hombre, eta a ver... Aldi batzuk be eukiko dauz. Baina hori beti ikusten dogu, ez?

98 (G1): Bai, bai, baina bueno. Ez, baina nik be ikusten dot igazko ikasturteagaz konparatuta... Ez dauka zerikusirik.

99 (T1): Totalmente diferente, totalmente diferente. Nik gogoratzen dot pasa dan urtean ipintzen neutsala...

100 (G1): Aurpegia pozik...

101 (T1): Hori, eta gero notatan ba arauak eta... Kostatzen jakon.

102 (G1): Bai, bai...

103 (T1): Kostatzen jakon zalako puro nerbio, eta gero horrek blokeoak eukiten ebazanak. Aurten ez da holan, apurtxu bat... Puntutxu bat deko...

104 (G1): Bai, bai bai, momentu puntualak.

105 (T1): Baina guztiz diferentea. Orduan, jo, ba ondo.

106 (G1): Bale, bale.

107 (T1): Gero hori... Robotikan be ipinten dot... Arauak errespetatzen dauzala ondo. Eh... Dinamika barneratzen dau ondo, ondo egiten dau lan. Batzuetan bai... Hombre, nahiago dau eraikitzailea izatea, laguntzailea izan baino.

108 (G1): Bai.

109 (T1): Baina bueno, bera eta beste...

110 (G1): Bai, baina gero mantendu egiten dauz be bai erronkak? Ze batzutan...

111 (T1): Mantendu erronkak? Zelan?

112 (G1): Dinot, batzutan ez da hasten jolasten piezakaz edo holan?

113 (T1): Bitu, ba horretan ez naz fijatu. Beste bat, ikusten dot totalmente hori egiten. Baina ez, (H1) ez...

114 (G1): Ez? Igual ez, eh? Igual mantendu egiten dau.

115 (T1): Igual nonoz egin dau, baina niretzako behintzat ez da izan hain evidentea. Igual mugitu dau zeozer baina normalean beti dau umetxu bat arreta deitu behar deusadana horretan, baina (H1) ez da.

116 (G1): Bale, bale, hobeto.

117 (T1): Gero, gainera, euri be esaten deusiet. Azkenean erronka euki arte, eta erronka behin amaitzen dabenean, jolasten dabe apurtxu bat eta gero esaten deusiet batzeko ze bestela euri be...

118 (G1): Bai, bai, egiten jakie luze, bai, bai...

119 (T1): Orduan claro, hasieran: “Ez, euki danok amaitu arte!”. Baina ikusten neban zala apurtxu bat desmadre, orduan jolasten dabe apurtxu bat...

120 (G1): Eta batu.

121 (T1): Eta gero jarraian batzen dabe. Gero xaken be, ipinten dot dana ondo. Piezaren bat...

122 (G1): Nahastu egiten dau.

123 (T1): Nahastu egiten dau. Orain ez dakit zein dan. Ondo, eh? Eta batzuetan ondo esaten dau. Baina identifikatzerakoan... Ez dakit badan errege-erregina izaten dala normalena erratzean...

124 (G1): Ez, ez deusta esan...

125 (T1): Baina batzuetan ondo esaten dau, beste batzuetan ba igual hori aldatzen dau. Ondo ipini deusatz ze...

126 (G1): Bai, ildo eta holan jarraitzen badau...

127 (T1): Perfectamente, perfectamente.

128 (G1): Bale.

129 (T1): Eta gero, mate be ipinten dot ondo.

130 (G1): Bale.

131 (T1): Lantzen doguzan kontzeptuak, magnitudeak...

132 (G1): Bai, badoa ez?

133 (T1): Bai, bai, bai. Numeroak be, zenbakiak... Zelan egon zan **(G1)**?

134 (G1): Bai, bai... Zenbakiak joe...

135 (T1): Zuk esaten zendun, ez?: “Es que nahi dauz zenbakiak idatzi. Hasi zarie horregaz?”.

136 (G1): Zenbakiak dau topera!

137 (T1): Bai, eta idazten dauz oso ondo.

138 (G1): Bai, eta noranzkotasuna eta dana, eh?. Baina joe, dau topera horregaz... Orain hasi da letrakaz.

139 (T1): Ah, bitu! Ba letrak ez gabiz lantzen.

140 (G1): Ba horregaitik, baina bueno...

141 (T1): Bueno...

142 (G1): Esaten deusat: “Ba egin...”.

143 (T1): Hori da! Azkenean, eh? Noz izan zan? Atzo! Eskatu neutsien marrazki bat. Astelehenean... Atzo martitzena, astelehenean izan zan (H1K3)(r)en urtebetetzea, eta bueno, egin eutsien marrazkitxo bat.

144 (G1): Bai, marrazkitxo bat eta, ez?

145 (T1): Eta batzuk bai, bueno (H1)(e)k igual ba bueno besteengandik ikusita, ez?: “Eh... Ba idatziko dot...”. Adibidez, gelako beste ume batek: “Idatziko dot (H1K3)(r)en izena nire orritxoan be bai”, ez? Orduan idazten dau bere izena eta (H1K3)(r)ena.

146 (G1): Gehi (H1K3)(r)ena...

147 (T1): Eta (H1)... Ez dakit nor ikusi eban bere mahaian, eta egin eban berdina.

148 (G1): Hasi da, baina es que denbora guztian: “Ama ipini kuadernoa eta (H1K6) idatziko dot, eta (H1K1) eta ez dakit nor...”.

149 (T1): Baina zer egiten dau? Kopiatu, edo zuk esaten deusazu?

150 (G1): Ez, ez, esaten: “L! LLLL”. Bai, bai. “Ah! *Lapikoa!*”.

151 (T1): Bai?

152 (G1): Hasi da!

153 (T1): Bueno ba (G1)... Oso ondo!

154 (G1): Bai, bai, baina ez dakit gero datorren urteari begira, con Herrera eta ez dakit zer...

155 (T1): Bueno azkenean prozesu hori pasatu beharko dau, gelan be badauz ume batzuk irakurten dakienak... Bueno ume batzuk... Ume bat, irakurtzen dakiana...

156 (G1): Bai, bai, baina hasi da: “Ama, venga idatziko dogu...” eta “Venga! Zein da? MMM, M!”. Hasi da, hasi da...

157 (T1): Oso ondo (G1), perfecto.

158 (G1): Bai, bai, bai.

159 (T1): Gainera hori... Interesa badauka, gogoia badauka...

160 (G1): Bai, a ver nik uste dot horretan, eh... Oso argi daukala (A1) hasten danean etxeko lanak egiten, berak be zeozer egin behar daua. Orduan, eskatu egiten dau. Batzutan ez, eh? Osea egunero ez dau eskatzen, baina bueno, badoa.

161 (T1): Jo, hori super ondo.

162 (G1): Bai, a ver si le centro. (Barreak).

163 (T1): Hombre, azkenean berak eskatzen badau, es que zer gehiago ahal da eskatu, ez?

164 (G1): Ya.

165 (T1): Azkenean ikusten dau gauza guay bat, edo bueno gustatzen jakona edo, interesa deko, osea que...

166 (G1): Bai, a ver, zelan doan...

167 (T1): Gero a ver, ahaleginean gehiago egin ahal dau, arduratsua da, normalean nahiko txukuna... Por si acaso, eh?

168 (G1): Bai, bai.

169 (T1): Zaila danean edo egun txarra daukanean, chapuzatxoak egiten dauz eta lasaiago dago. Gero, harremanetan be, nigaz ipinten dot ondo. Betikoa... Lotsa puntutxu hori.

170 (G1): Bai, lotsatu egiten da, bai.

171 (T1): Eta igual hori, nonoz zeozer gertatzen jakonean hori be badakit dala bere gauza, ez da hainbeste lotsa. Zeozer gertatzen jakonean: “Venga **(H1)**, etorri eta kontatu”.

172 (G1): Eta kostatzen jako pilo bat.

173 (T1): Bai.

174 (G1): Baina hori gugaz be bai, eh? Osea ez dauanean... Edo kostatu egiten jakola zerbait onartzea, edo zer gertatu dan onartzea... Gugaz be bai etxean.

175 (T1): Bai, hor bai. A ver, egia da orain askoz gitxiago gertatzen jako...

176 (G1): Baina bai...

177 (T1): Gogoratzen dot 3 urteko gelan kostatzen jakola pilo bat parkamena eskatzea.

178 (G1): Pilo bat.

179 (T1): Eta orain super ondo eskatzen dau, eh? Inolako arazo barik. Zeozer gertatzen bada...: “**(H1)**! Zapaldu dozu gura barik, badakit ez dozula ikusi baina behintzat joan eta esan parkatu”. Doa eta eskatzen dau parkamena. Osea alde horretatik be hobetu dau...

180 (G1): Bai, hobetu dau.

181 (T1): Eta bueno, hor bai ipintzen deusat ondo bat. A ver, nigana etorten da, da super majoa...

182 (G1): Bai, bueno baina azkenean badakit... Bai, bai.

183 (T1): Atentzioa be eskatzen deusta, baina...

184 (G1): Ikusten deutsat nik be bai hori lotsa puntu hori ez dauala kentzen.

185 (T1): Puntutxu hori deko... Gero lagunekaz harremantzen da oso ondo, lagun danekin. Eta nahiak, desioak eta beharrianak adieraztean be, ondo bat ipini deutsat.

186 (G1): Bale .

187 (T1): Gero... Azkenaldian, ez da lehen bezala blokeatzen, komentatu doguna, ez? Urduri dagoanean edo egoera bereziren baten, pues pasatu ahal jako baina bueno dala super puntuala orain.

188 (G1): Bai.

189 (T1): Hizkuntzan eta berba egiterakoan, oso ondo. Ya ez dau egiten hain arin.

190 (G1): Hain arin, ez? Es que ni nengoan oso arduratuta, es que se envala...

191 (T1): Ez, ez. Ez dau egiten hain arin.

192 (G1): Super arin egiten dau askotan, eta claro, ulertzeko be... Nik uste esan nahi dauzela hainbeste gauza, joakola burua arinago eta...

193 (T1): Bai, bai. Ez, baina orain egia da... Oso ondo. Hitz egiten dau askoz ere astiroago. Euskeraz ipinten deutsat ondo be bai, ahal dau apurtxu bat gehiago...

194 (G1): Bai, bai, askoz gehiago.

195 (T1): Baina bera eta gelako beste ez dakit zenbatek, ez? Baina bueno hitz egiterakoan oso ondo, euskera oso ondo. Eta azalpenak argiak dira ama-hizkuntzan be, ondo.

196 (G1): Bale, oso ondo.

197 (T1): Ingelesa ez daukat, bale (G1)? Eskatu dot musikakoa, bueno (MI)(e)k... Itemak eta gero be (PI)(e)k bialdu deustazan itemak.

198 (G1): Lasai.

199 (T1): Orduan, musika... Zer deko? Eh, bueno oso ondo abestiak eta dantza... Errepikatu eta ikasi... Bueno, interpretatzen dauz... Biolina be bai, oso ondo. Biolina orokorrean, ez dakit hitz egiten dauan, baina orokorrean super gustora dauz.

200 (G1): Es que (H1) musikakoan dau super gustora, bai extraescolarretan eta bai (MI)(e)gaz. Asko gustatzen jako.

201 (T1): Osea disfrutatzen dau.

202 (G1): Justo aurreko egunean gainera (**HEMI**)(e)gaz topa nintzan pasabidean, eta sin mas: “Aupa!”, “Aupa!”, “Zu zara (**H1**)(r)en ama?”, “Bai”. Eta esan eustan: “Jo, es que dau super ondo gelan, ez dakit zer...”. Bueno, eskerrak...

203 (T1): Bai, oso ondo. Ba bitu, gustatzen jako, interesa deko, horrela disfrutatzen dau.

204 (G1): Bai, bai.

205 (T1): Eta gero ekintzetan inplikatzeko da oso ondo, eta jarrera be ondo.

206 (G1): Ondo, bale.

207 (T1): Gero, teacherrena ez dakit.

208 (G1): Ez, lasai.

209 (T1): Gero (**PI**)(e)gaz oso ondo, mugimenduetan ziurtasuna eta gustora doa.

210 (G1): Oso ondo.

211 (T1): Orduan, egia da pasa dan urteagaz alderatuta edo... Pilo bat hobetu da.

212 (G1): Bai.

213 (T1): Pilo bat hobetu da izaeran, osea izaera azkenean... Ba hori, helduagoa da edo...

214 (G1): Nik ikusten dot hori... Konzienteago.

215 (T1): Hori da, helduago.

216 (G1): Bai, eta onartzen dauzala gauzak hobeto.

217 (T1): Bai, eta hori azkenean, denbora... Bakoitza da dan modukoa.

218 (G1): Bai.

219 (T1): Eta gero lan egitekoa: ondo. Harremanetan be: oso ondo. Osea que...

220 (G1): Ba oso ondo!

221 (T1): Lasai gelditzen zara (**G1**)?

222 (G1): Bai, lasai nengoan, ze umea ikusten neban hoherantza. Baina beti gelditzen jatzu zalantza hori, ez? Zelan egongo da gelan?

223 (T1): Ez, bestela badakizu komentatzen deusudala, arduratuta egongo banintza: “Hau, hau, hau...”.

224 (G1): Ez, baina batez be, azkenean ikusita nogaz egoten da...

225 (T1): Bai.

226 (G1): (H1K1), (H1K4)...

227 (T1): Gelako mobidoenak egoten dira...

228 (G1): Osea que a ver, baina bueno, pozten naz...

229 (T1): Baina egia da behintzat, nahiz eta eurekin be egonda, alde hori...

230 (G1): Bai, nik uste dot hasi dala desberdintzen.

231 (T1): Hori da, bera be kontziente da eta badaki: “Jo, honekaz banoa me puede caer bronca”, no? Edo ez dakit zelan esan... Edo andereño ahal da hasarratu...

232 (G1): Bai.

233 (T1): Bera kontziente da.

234 (G1): Bai, bai, kontzienteagoa da.

235 (T1): Orduan batzuetan, evidentemente, lagunak dira eta bueno...

236 (G1): Bai, bai, baina nik be esaen deusat, eh?

237 (T1): Modu egoki baten, eh? Bera ez da astokillotxua.

238 (G1): Bai, baina askotan igual, (H1K1)(e)taz eta: “Es que (H1K1)(e)k apurtu dau platerra eta ez dakit zer”. Eta nik esaten deusat: “(H1K1) zure laguna da, ez dozu alde batera itzi behar, baina zu gelako momentuetan edo jolasketan (H1K1)(e)k egiten badau zeezer zuk ez dozu jarraitu behar denbora guztian”.

239 (T1): Claro, hori da, hori da.

240 (G1): Orduan, ba a ver...

241 (T1): Bueno... Baina oso ondo dabil, oso ondo dabil. Gero da super majoa, super kariñosoa... Beti...

242 (G1): Bai, bai, bai...

243 (T1): Beti laguntzeko prest. Ez dotsut esan. Askotan gelan... Neskak eta mutilak... Mutilak dira nahiko cañeritoak, neskak eh... Bueno... Ez dira hain cañeritak, baina izaera handiko taldetxoa da, ez? Eta askotan: “Batu!”. Batzeko hasarratu behar naz, baina hasarratu behar naz.... Azkenean egin behar dodala oiñu: “Zer esan dot? Zelan hitz egin behar dot? Ba-tze-ko!!”. Baina claro, igual aurretik sei, zazpi, zortzi saiakera egin dodaz...

244 (G1): Bai, zortzigarren aldia da. Bai, bai.

245 (T1): Gaur adibidez, emon dotsiet, zelan dan azkenengo astea ez dakit zer... Ez dekogu holan lan askorik egiteko gelan, eta esan deusiet: “Bueno gauzatxu bat, gaur egun berezia eukingo dogu, igoko gara material gelara, hartuko doguz pilo bat material

desberdin, ipiniko doguz gelan eta eraikiko dozue zeozer nahi dozuezan materialakaz”. Eta bueno, super pozik ipini dira, ez dakit zer... Bueno, gero batzeko...

246 (G1): (Barreak).

247 (T1): Paper pilo bat, brillantina, ez dakit zer... Eta esan deusiet: “Batu!”. Benetan ya hasarratu nazela, 5-6 aldiz esan dot. Azkenean ipini dot iPadeko konometroa: minutu bat. Batu dabe super arin...

248 (G1): Bai, bai, bai, baina batzeko momentuan etxean be, eh?

249 (T1): Eta ez, ez... Gero, hor sartuta badau, hasieran kostatzen jako apur bat, baina gero da super txukuna, hasten danean... Danetarako: mahaiak ondo, hau bere lekuan...

250 (G1): Bai, bai, etxean hartzen dau erratza eta dana, baina claro...

251 (T1): Hori da, osea hori da. Baina batez ere hori, ez? Eraikuntzekin dagoanean edo, igual kostatzen jako, baina bueno dentro de lo normal. Eta nahiko laguntzen dau, eh? Nahiko laguntzen dau.

252 (G1): Eskerrak!!

253 (T1): Bai, bai, bai. Ze besteek... Ez, ez, besteei kostatzen jakie gehiago.

254 (G1): Ez, nik badakit laguntzeko prest dagoala.

255 (T1): Beti.

256 (G1): Edo eskaintza hori beti egingo dauala. Baina gainera, gustatzen jakola... La salsilla. (Barreak).

257 (T1): Bai. Eta askotan: “(T1)” Bueno askotan ez dau esaten, ikusten dot directamente. Aulkiagaz... Baina ez bere mahaikoa bakarrik, beste mahaia, beste mahaia... Ez dakit, dagoela ez dakit zer batzen... Eta: “Eskerrik asko (H1), eskerrak zu zauten, ze bestela ze zikin egongo zan gela!”.

258 (G1): Ai ama!

259 (T1): Es un potxolo...

260 (G1): Ba eskerrik asko!!

261 (T1): Ez horregatik!

2. ERANSKINA: Irakasle aditu eta guraso arteko 2. elkarrizketa.


Data: 2018/03/21

Iraupena: 19:23

Elkarrizketa egiteko arrazoia: 5 urteko hauraren bigarren hiruhilabeteko ebaluazioa egitea, bide batez, ikerketa-lan honetarako ikergaia eskainiz.

Parte-hartzaileak: Tutorea (T2) eta ama (G2).

Elkarrizketaren kokapena:



TRANSKRIPZIOA:

1 (T2): Bueno, hasiko naz komentatzen arlo guztiak eta egingo deusut konparaketa bat, aurreko hiruhilabetekoa, honegaz.

2 (G2): Bale.

3 (T2): Bale? A ver, orokorrean, eh... Lehenengo arlo honetan... Autonomia, eta bueno, eta gelako dinamika honetan, ez deko inolako arazorik, eh?

4 (G2): (Baiezkoa emanaz, ahoarekin zarata egin).

5 (T2): Jarraitzen dau etortzen pozik, autonomiaren aldetik ez deko inolako arazorik, eh... Korroan eta hori guztia, bah... Dago adi, jantokian ondo, batzen dau, arauak errespetatzen dauz...

6 (G2): Bale.

7 (T2): Osea que alde horretatik jarraitzen dogu oso ondo, berdin. Harremanekaz, lagunekaz, be bai. Jarraitzen dau bere betiko lagunekaz: (H2K1), (H2K2)... Orain igual egoten da gehiago (H2K2)(e)gaz.

8 (G2): (Baiezkoa emanaz, ahoarekin zarata egin).

9 (T2): (H2K3), (H2K4)... Baina bueno, deko hor bere kuadrillita. Bueno hori ya... Badakizu zuk, eta ondo! Osea ez deko inolako arazorik jostailuak konpartitzeko edo beste bategaz batera jolasteko... Hor ez dago inolako konfliktorik, bera ez jata inoiz etortzen esaten: "(T2), es que ez deusta izten". Konpontzen da...

10 (G2): Bai.

11 (T2): Oso ondo lagunekaz. Bueno, hizkuntzaren aldetik, ondo egiten dau berba, ulertzen jago, dana euskeraz egiten dau, polito egiten dau... Eta bueno, orain Herreraren metodoagaz... Jarraitzen dogu lehenengo hiruhilabetean bezala: oso ondo!

12 (G2): Bale.

13 (T2): Oso ondo! Osea egia esan, eh... Ezagutzen dauz fonemak, eh... Irakurtzen dauz oso ondo. Igual lo unico, holan igual esateagaitik, egiterakoan fonemak, hori noranzkotasuna zaintzen eta hori, adibidez *tinito* badakizu urtetzen jakola eh... Holan (umeak duen idazteko modua imitatu)... Ez dau ixten ondo... Egiten dau holan... Osea noranzkotasuna egiten dau ondo, lo que pasa que gero kostatzen jako...

14 (G2): Bai, urtetzen jako A moduan.

15 (T2): Eso es! Eh? Baina berak badaki dala *tinito*, eta bueno, saiatzen da. Eta *lapikoa* egiterakoan, egin beharrean holan apurtxu bat luzeagoa (umeak duen idazteko modua imitatu), urtetzen jako...

16 (G2): E bat!

17 (T2): Eso es! Baina bueno, baina oso ondo. Beste guztiak oso ondo egiten dauz, zaintzen dau oso ondo aurrekoan ikasitako A E I O U, ze dira kasu honetan... Gatzenak dira.

18 (G2): Berak dino zagoziela P egiten. Edo bakarrik irakurtzen?

19 (T2): Pues ez gagoz ez irakurtzen, ez egiten. Baina egingo dogu oporrak eta gero.

20 (G2): Es que esan eustan: “Hasi gara ya nire izenarena: P. Patatak daukalako *patxi pirata*”.

21 (T2): Ah! Ez...

22 (G2): Eta esan deusat: “Baina hasi zarie zelan? Irakurtzen edo egiten?”, “Ba egiten dogu... Egiten dogu, da egiten dogu”. Eta nik: “Ya, baina egiten dozu zer da? Idazten?” Ze claro P nahiko konplikatua da.

23 (T2): Bai.

24 (G2): Eta orduan beragaz egiteko: “Ba hasiko gara...”, “Baina patata, bakarrik ipini behar da patata”. Eta ni... Berak berez bez ez daki azaltzen.

25 (T2): Bai, a ver, gauza da metodo honetan... Zuk alde batetik emoten dozuz fonemak, baina gero dagoz ikasgai batzuk hitzak lantzeko direla. Hitzen barruan dagoz: janariak, animaliak... Bueno, eta orain hasi gara beste blokeATEGAZ direla etxeko guneak.

26 (G2): (Baiezkoa emanaz, ahoarekin zarata egin).

27 (T2): Orduan, berak esaten deusuna da: janariak. Janarien barruan... Baina hasi gara bakarrik irakurtzen.

28 (G2): (Baiezkoa emanaz, ahoarekin zarata egin).

29 (T2): Osea guk bakarrik dakigu patatak ipintzen dauanean... Irakurtzen dogu...

30 (G2): Osea, baina ez zarie hasi P idazten ez ezebez...

31 (T2): Hasiko gara P fonemagaz oporrak eta gero. Hor bai hasiko gara, baina claro horretaz ez dogu...

32 (G2): Bale.

33 (T2): Ez dogu barbarik egin... Lo que pasa que berak igual ikusi dau patata eta ya... Suposatu dau. Bueno, gero adibidez ingelesean teacherrek ipini deusta dana oso ondo, eh? Ulermen egokia erakusten dau, errutinak eta hiztegia errepikatzen dau, parte-hartzailea da, jarrera ona erakusten dau... Lo unico holan hobetzeko moduan, baina ondo dagoela, galderei erantzutea. Esaten dau igual batzuetan hor tratatzen dala apurtxu bat, bueno, galderak erantzuterakoan... Musikan, abestiak eta dantzak errepikatzen dauz, erritmoa jarraitzekoa hor...

34 (G2): (Baiezkoa emanaz, ahoarekin zarata egin).

35 (T2): Nik egia esan, hiru urtetan... Ez dakit dantza gustatzen jakon, baina nik esango nuke que un poquitín menos que... ez dakit.

36 (G2): Bueno, baina etxean bai dantzatzen dau eta holan, baina nahiko lotsatia da.

37 (T2): Claro, es que hori da. Orduan, pues sin mas... Parte-hartze egokia deko, jarrera egokia, eta biolinarekin oso ondo. Psikomotrizitatearen barruan, komentatu deusta maisuk... Oso ondo, bere jarrera oso ona dala eta ariketak oso ondo egiten dauzala, oso pozik joaten dala. Eta gero egon naz begiratzen extraescolarra musikakoa, eta hobetu dauela pilo bat.

38 (G2): Bale.

39 (T2): Konparatuta lehenengo hiruhilabeteagaz... Orduan, hemendik jarraitzen badogu, gero dekogu matematikako arloa. Vamos a ver, arlo honetan, ya komentatu genduan lehenengo hiruhilabetea...

40 (G2): Batuketak?

41 (T2): Hori da! Hobetu behar dogula... Orduan, eh... Hilabete honetan egon gara egiten grafia, 0tik 9ra arte. Orduan, berak XXXX ondo egiten dauela, baina adibidez kostatzen jako 8a, egiten dauela infinito moduan.

42 (G2): Bai.

43 (T2): 5a batzuetan egiten dauela alderantziz, eta 9a.

44 (G2): Alderantziz, espejo, ez?

45 (T2): Hori da, hori da. Eta 9a be bai egiten dau alderantziz. Baina bueno, hori izango da grafia gehiago egitea, baina bueno, hemen ipini deustut honegaz kontuz ibiltzeko.

Eh... Zenbaketa gora eta behera ondo egiten dau, arazo barik. Eta a ver, hemen... Egon gara batuketak eta kenketak egiten. A ver, nik ikusten dodana da, adibidez, orain kostatzen jako gitxiago batuketak. Kurioso da, egiten doguzalako buruagaz eta eskuagaz. Baina claro, bera non liatzen da? Atzamarrak ateratzerakoan eta gordetzerakoan. Por ejemplo, nik esaten deusat: “Eh... 8-2”, no?

46 (G2): (Baiezkoa eman ez, ahoarekin zarata egin).

47 (T2): Berak jartzen dau 8. “Kendu 2”. Eta hasten da (eskuekin haurrak egiten duena imitatu)... Ez daki zein dan, berak pentsatzen dau dagoela...

48 (G2): Dagoela metodo bat.

49 (T2): Hori da, kendu behar dodazala hauek, edo... (atzamarrek mugituz haurrak egiten duena imitatu). Orduan, nik beti esaten deusat: “A ver, kendu nahi dozuzanak, baina hobeto izkinetatik hasten bazara kentzen, por que erditik hasten bazara, liatuko zara”. Orduan, bera hor tratatzen da, kentzerakoan, por que ez daki, holan egin eta holan egin edo holan eta holan... (atzamarrekin adibide desberdinak adierazi). Hor liatzen da: “Zein kendu?”.

50 (G2): Es que nik gero etxean ikusi deusadana, osea zuk dinozuna, osea tratatzen da. Imajinatu: 8-2.

51 (T2): Bai.

52 (G2): Osea berak uste dauelako... Osea berarentzako 8 da holan (eskuekin zenbakia adierazi). Osea 8 ez dau balio holan (eskuekin zenbaki bera beste era baten adierazi).

53 (T2): Bai.

54 (G2): Osea berak daukaz atzamar konkretu batzuk...

55 (T2): Bai, 8 markatzeko.

56 (G2): 8 markatzeko.

57 (T2): Bai.

58 (G2): Orduan berak kentzen badeusuz...

59 (T2): 2...

60 (G2): 3!

61 (T2): Ah, bai.

62 (G2): Imajinatu: 8-3. Eta berak kentzen badau hemengo bat eta hemengo bi, hau berarentzako ez da 5 (eskuarekin kenketa adierazi).

63 (T2): Ya.

64 (G2): Berarentzako 5 da hau (eskua bakarrarekin zenbakia adierazi).

65 (T2): Bai. Claro.

66 (G2): Ez dakit azaltzen nazen.

67 (T2): Bai, bai.

68 (G2): Osea berarentzako 1 da holan, 1 ez da holan (eskuekin haurrak egiten duena imitatu).

69 (T2): Bai, bai.

70 (G2): Osea 1 da holan. 3 da holan, 3 ez da holan edo 3 ez da holan (eskuekin haurrak egiten duena imitatu). Orduan...

71 (T2): Bai, por que bera dago beti bilatzen, betiko zenbakiak...

72 (G2): Bere arazoa atzamarrekaz hori da, osea berak uste dauala zenbaki bakoitzak bakarrik daukala atzamarrekaz egiteko era bat.

73 (T2): Ya.

74 (G2): Ez dau ulertzen.

75 (T2): Bai, bai.

76 (G2): Osea eta ya... Eh... 5, osea... Eh...

77 (T2): Bai, holan egin beharrean... (Bi eskuetako atzamarrekin 5 zenbakia adierazi).

78 (G2): Esku bitan eukitea ezinezkoa da. Berarentzako, esku bitan badaukazu zenbaki bat, da 5 baino handiagoa dala.

79 (T2): Handiagoa dala, bai.

80 (G2): Osea, nik igual batzutan esaten deusat: "Hau da 5" (bi eskuetako atzamarrekin 5 zenbakia adierazi). "Ez, zuk egiten dozuna da asko, eta 5 da gitxi".

81 (T2): Claro, por que berak ikusten dau esku biak erabiltzen dozuzala.

82 (G2): Esku biak erabiltzen dodazala...

83 (T2): Bai.

84 (G2): Gero gauza konkretuakaz emoten badeusazu, margoak eta holan...

85 (T2): Bai, hori egon naz esateko.

86 (G2): Holan bai.

87 (T2): Holan egiten dau ondo.

88 (G2): Holan egiten deutsu.

89 (T2): Bai, por que beste egunean egon ginen kenketak egiten paperean. Eta ekarri eustan orria eta hasieran, ba hori, egin ebazan batzuk txarto. Eta esan eustan berak: “Egin ahal dot margoekaz?”, “Pues claro egin ahal dozula”. Eta zuk dinozuna, ateratzen ebazan margoak: “Venga, eta orain kenduko doguz”. Kentzen ebazan: “Baina bota botera”. Por que izten badauz mahai ganean, osea... Zuk imajinatu: dekozu 8, no? Eta nik esaten deutsat: “Kendu 2!”. 2 hoiak izten badauz mahai ganean...

90 (G2): Zenbatzen dauz...

91 (T2): Berrito zenbatzen dauz... Orduan, nik esaten neutsan: “Ba kendu, baina botera”. Eta sartzen ebazan... Bai, hor ez dago arazorik.

92 (G2): Eta gero, ezabatzeko... Adibidez zuk esaten deutsazu: “8 lore”.

93 (T2): Bai.

94 (G2): “Kendu 3”. Berak uste dau berdina, atzamarren berdina, osea berak 3 ezabatzeko bakarrik dagoela era bat.

95 (T2): Izan behar direla jarraian, bai.

96 (G2): Osea, orduan... Multzoan badira, hasten da zalantzak eukiten: “Baina hau da? Edo hau da? Edo...”

97 (T2): Bai, bai.

98 (G2): “Zuk pentsatu. 3, gura dozuzanak”, “Baina gura dodazanak, zein?”. Osea hor berak uste dau bakarrik dagoala...

99 (T2): Era bat.

100 (G2): Osea zenbakiak... Berak, osea bere buruan ez daukaz ondo estrukturatuta.

101 (T2): Bai.

102 (G2): Zentzu honetan... Eh? Nire ustez...

103 (T2): Bai, bai, ni be bai ados nago, eh?. Por que bera... Nik ikusten dot ipintzerakoan zenbakiak... Es como... Por que claro, batzuk egiten dabe: “8, eta kendu 3”. Eta egiten dabe: “1, 2...” (eskuekin umeek egiten dutena imitatu). Imajinatu... Que da konplikatu, por que claro, euki behar dozu kontrol oso ona eskuetan mantentzeko besteak zutunik.

104 (G2): (Baiezkoa emanaz, ahoarekin zarata egin).

105 (T2): Eta claro, berarentzako hori, ezinezkoa da. Orduan izan behar da: edo kendu 3 holan (eskuarekin umeak egiten duena imitatu)... Eta ya claro, inmediateamente ikusten dozu XXXX.

106 (G2): Bai...

107 (T2): Beste modu baten kentzen badozuz, ya liatzen da. Bai, bai, guztiz ados horregaz, guztiz ados.

108 (G2): A ver, ez dakit, pentsatuta neukan hartzea erregletak edo polikuboak. Ia berak bere buruan lotura horrek egiten hasten dan.

109 (T2): Ba polikuboakaz... Bueno, erregletekaz be bai, eh? Baina ez dakit...

110 (G2): Osea, ikusteko bardin dala egotea, eh... Osea, kentzea alde batetik edo bestetik...

111 (T2): Bai, bai, bai, bai, bai.

112 (G2): Osea kopurua berdina dala, osea, berak estruktura hori ez dau egiten.

113 (T2): Bai. Es que ez deko hori barneratuta. Bueno, ba polikuboakaz... Claro, nik ez dot lan egin polikuboakaz, baina bueno, egongo da ondo. Erregletekaz be bai, horrek bai ezagutzen dodaz, baina polikuboak ez. Orduan, hor jarraitzen dogu, bale?

114 (G2): Bai, bai.

115 (T2): Arlo horretan... Gero, xakean... Pues es que lotuta dago. Xakean, adibidez, eh... Orain, erregea badaki oso ondo zelan mugitzen dan, por que orain berriak dira... Parkatu, erregea esan dot eta da erregina. Erregina eta zaldia. Zer pasatzen da zaldiagaz? Berak badaki perfectamente teoria, osea badaki oso ondo. Eta berak badaki izan behar dirala lau karratu, mugitzeko holan (orrian, zaldia jarraitu beharreko noranzkoa irudikatu). Baina, zer egiten dau? Iguan egiten dauz, igual hemen badago zaldia... Lau karratuak... Berak egiten deutsu: "1, 2, 3, 4" (orrian, haurrak zaldia zelan mugitzen duen irudikatu).

116 (G2): (Baiezkoa emanaz, ahoarekin zarata egin).

117 (T2): Claro, nik esaten deusat: euki behar dau *lapikoaren* forma. Baina hor ya... se le va. Eta zaldiagaz pasetan jako hori, osea egiten dau holan, en redondo (orrian noranzkoa irudikatu). Eta berak esaten deutsu: "Izan behar da: lau karratu, zaldia badago karratu zurian amaitu behar da karratu baltzean", "Perfecto!", "Eta izan behar da *lapiko* bat", "Oso ondo! Ba mugidu!". Eta egiten deutsu: pum, pum, pum, pum! (Haurrak zaldiarekin egiten duen mugimendua eskuarekin adierazi).

118 (G2): (Baiezkoa emanaz, ahoarekin zarata egin). Claro, nik esaten deusat pues egin behar dauela: "1, 2, 1" edo "1, 2 eta beste aldera". Baina berak esaten deusta: "Es que (T2)(e)k zenbatzen dau 4". Eta claro ni: "Ez baina nik zenbatzen dot...". Osea, claro...

119 (T2): Claro, zuk ez dozu zenbatzen bera dagoen lekua, a partir de ahi zenbatzen dozu...

120 (G2): (Baiezkoa emanaz, ahoarekin zarata egin). Bueno sin mas...

121 (T2): Bueno, baina hala ere, te hace la vuelta, eh?

122 (G2): Bai, bai.

123 (T2): Nahiz eta holan egin, ez deutsu egiten la esta...

124 (G2): Bale.

125 (T2): Eh? Baina bueno, erregina ez. Erregina adibidez, berarentzako oso erreza da, zergatik? Ze mugitzen da nahi dauzen karratuak, alfila moduan... “(T2), zaldia moduan ez”. Hori ya badaki fijo ezetz. Baina, bestea bai... Orduan, hobetzekotan, hor mugitzen gara.

126 (G2): (Baiezkoa eman ez, ahoarekin zarata egin).

127 (T2): Aurrekoan bezala...

128 (G2): Bale.

129 (T2): Eh? Batuketak, kenketak eta zaldia. Eta esaten deutsut, egiten dauz hobeto batuketak kenketak baino.

130 (G2): (Baiezkoa eman ez, ahoarekin zarata egin).

131 (T2): Por que claro, batuketak ya bakarrik erabiltzen dau burua handientzako eta atzamarrak txikientzako. Orduan hor da errepikatzea, eta hori (H2)(r)entzat oso metodo ona da, errepikapenarena.

132 (G2): Bai.

133 (T2): Orduan, bera hasten da: “A ver, $8+4$. 8, 8, 8, 8 (eskumuturra buruan jarri)... 4 (atzamarrekin zenbakia adierazi), 8, 8, 8, 8 (eskumuturra buruan jarri)”. Baina berarentzako ya dira gauza bi, gauza bat da buruan, bestea eskuan... Baina kenketekaz... Ipintzea hasieran zenbakia, gero kentzea... Es como que...

134 (G2): Ez, ez dau ulertzen...

135 (T2): Hor bai tratatzen da. Bale? Orduan, beste guztia ondo. Bakarrik horrek bi gauzak, eh?.

136 (G2): Bale.

137 (T2): Xaken ipini deusat ondo, por que claro izaterakoan bi irudi, zaldia eta erregina, erregina ondo kontrolatzen dau, zaldia XXXX. Orduan da fifty fifty, eta beste guztia ba ondo, ondo. Bera dago betiko lez. Bera dago betiko lez. Gelan dago oso pozik, dinamika jarraitzen dau, eh... Gustatzen jako pilo bat parte-hartzea, bai korroan, bai proiektuetan, edozein momentutan... Orduan alde horretatik, oso ondo.

138 (G2): Bale, bueno nik neukan trazoarena (kuadernoan apuntatutako zalantzak begiratu). Ia zelan ikusten zenduan, baina badinostazu ondo.

139 (T2): Bai.

140 (G2): Eh, gero... Idatzizko produkzioak.

141 (T2): Bai.

142 (G2): Zerbait idazten hasi behar da bere kabuz?

143 (T2): Claro, es que hor gauza da... A ver, gu metodo berri honegaz, eh... Gauza da, idazmenari buruz ez dakigu ezebez. Orduan, niri eurek esaten deustienean idazteko zeozer, nik esaten deutset: “Claro, baina zelan?”, “Maiuskulaz”, “Bale, bale”. Izten deutset. Por que claro, nik gura ez dodana da, hastea idazten euren kabuz bakarrik marrazkietan, eta egitea noranzkotasuna txarto. Bai egia esan, oso gitxitan eskatzen dabela idaztea, eta bai egia esan, zeozer idatzi nahi dabenean, maiuskulaz erabiltzen dabezala, por que eurak ziur sentitzen dira.

144 (G2): Ez, berak ez dau eskatzen, eh?

145 (T2): Ya, zuk dinozu.

146 (T2) (G2): (Barreak).

147 (G2): Baina da ia zerbait idazten hasi beharko...

148 (T2): A ver...

149 (G2): Osea, azaltzen naz?

150 (T2): Bai, bai.

151 (G2): Osea es que bera beragaitik, osea paperak etxean sobratzen jakoz, osea...

152 (T2): A ver, nik gauza bat esango deusut. A ver, zu ama moduan eta andereño moduan, zuk badakizu zelan egin behar dan. Orduan nik esango neutsun: hasi egiten!

153 (G2): (Baiezkoa emanaz, ahoarekin zarata egin).

154 (T2): Hori da nire aholkua, ze zuk badakizu zelako noranzkotasuna hartu behar dan. Orduan, nik bai hori ikusten dot Herreraren metodoa dagoala apur bat cojito horretan. Orduan, nik bai egingo nuke.

155 (G2): Bale.

156 (T2): Por que berak badaki noranzkotasuna, badaki norantza... Orduan, imajinatu: “MA” (astiro eta indarrez ahoskatu). Bale, zergatik ez? Baina claro, egon behar zara ikusten zelan egiten dauan... Baina nik bai egingo nuke.

157 (G2): Claro, daukaz Rubioko kuadernoak, ya loturak edo egiten hasteko. Pero bueno...

158 (T2): Ya. Nik egingo nuke igual holan, silabak, eh? Por que nik hemen egin nebanean froga ikusteko noranzkotasuna, nik esaten neutsen: “*Hiru mendi*”, “Minuskulaz?”, “Bai”. Pa, pa, pa (haurrek jarraitutako noranzkotasuna adierazi paperean). Baina esaten badeutsezu: “*Hiru mendi* eta A, MA”. Ti, ti (idazteko keinua egin), fijatu zaitetz a ver A, ze *hiru mendi* erreza da, baina a ver A zelan egiten dauan.

159 (G2): Bale, eta gero agendarena, a ver gaur ez dau ekarri agenda.

160 (T2): Esan deusta.

161 (G2): Eta azaldu deutsu zergatik?

162 (T2): Ze ahaztu jatzu zuri.

163 (G2): Ez...

164 (T2): Ez, zeozer pasatu da.

165 (G2): Claro. Atzo oso txarto portatu zan eta bere gauza zan agendan ez apuntatzea. Eta nik esan deutsat ba ia berari zer iruditzen jakon. Ze claro, berak esaten eustan ondo apuntatzeko. Eta nik esan deutsat nik gezurrik ez nebala idatziko.

166 (T2): Bai.

167 (G2): Orduan nik zuri ondo ipintzea, ba gezur bat esatea zala. Eta berak esan dosta: “Bai, baina nik ez dot gura (T2) enteratzea txarto portatu nazenik, orduan, agenda etxean itziko dot”. Eta nik esan deutsat: “Bueno ba, zuk uste dozu ondo jokatzan zabilzala?”, “Ikusiko dot, eta gero pentsatuko dot”.

168 (T2): Esan edo ez, no?

169 (G2): Eh? Gero pentsatuko dauela... Osea, gero, egunean zehar konturatuko zala ia ondo jokatzan egoan edo ez.

170 (T2): Ah bale bale, egunean zehar...

171 (G2): Orduan, nik esan deutsat: “Zure esku! Zure agenda etxean izten dozu, baina zuk jakin daizun, nik gaur (T2)(e)gaz batzarra daukat”, “Eta itauntzen badeutsu?”, “Ba nik, itauntzen badeusta zelan portatu zaran, nik egia esango deutsat... Orduan zu konturatu, agenda etxean itzi dozu, ondo jokatzan zabiz?”, “Uste dot baietz”, “Bueno, ba nik gero (T2)(e)gaz hitz egingo dot eta nik esan egingo deutsat zelan portatu zaran”, “Gaeuan esango deutsut zer pentsatu dodan”. Osea, a ver gaur itzi deutsadala...

172 (T2): Bale.

173 (G2): Eta nik uste neban, bera ikastolara helduko zala y que se le iba a caer el mundo... Pues no se le ha caido.

174 (T2): Que va... que va, que va. Nik esan deutsat: “(H2), ez dozu ekarri agenda?”, “Ez!”, “Eta? Zergatik?”, “Es que amari ahaztu jako”.

175 (G2): Ba motxilan euki dau agenda, eh?

176 (T2): Bai, baina nik ez dot begiratu motxilan...

177 (G2): Ez, motxilan euki dau etxean. Osea, ze guk idazten dogu goizean. Hona etortzen garenean, orduan idazten dogu. Ze bestela gabaz idazten baneutsan, goizekoak ez eban balio.

178 (T2): Bai.

179 (G2): Orduan idazten dogu beti gelara sartu baino arinago. Eta orduan agenda motxilan eukan.

180 (T2): ¡Que buena! “Amari ahaztu jako” esan deusta.

181 (G2): “Ba nik pentsatzen dot atarako dodala, bale?”, baina...

43 (T2EA2): Psikomotrizitateari dagokionez, maisuak komentatu didanaren arabera, bere jarrera oso ona da, ariketak oso ondo egiten ditu, eta gainera, psikomotrizitate saiora oso pozik joaten da. Asi que horretan, arazo barik...

44 (G2EA0): Bale, ados.

45 (T2EA2): Bueno, eh... Esatea matematikan zenbait datu ditudala komentatzeko, bale?

46 (G2EA0): Bai.

47 (T2EA2): Zenbakien grafia era egokian egiten du, egia da 0tik 9rako grafia landu dugula eta 8a egiterako momentuan infinito moduko bat egiten duela. Gainera, 5a eta 9a batzutan alderantziz egiten ditu.

48 (G2EA0): Alderantziz, ispilua bezala, ezta?

49 (T2EA2): Hori da! Egia da... Orokorrean ondo moldatzen da, baina hori... Esandako zailtasun horietan ba arreta jarri behar dugu, bai ikastolan, bai etxean.

50 (G2EA0): Bale, bai.

51 (T2EA2): Egia da zenbaketak egiterako momentuan oso ondo egiten dituela, hau da, gai da 0tik 10era zenbatzeko eta 10etik 0ra zenbatzeko. Horretan ez dago inolako arazorik. Eh... Arazoa dator batuketak edo eragiketak egiterako momentuan. Hor, pixkatxo bat... Arreta ipini behar dugu. Izan ere, eh... Nahiz eta batuketak eta kenketak egiteko, eskuak erabili, zailtasun batzuk ikusten ditut. Izan ere, zein atzamar kentzearekin edo zein atzamar batzearekin, zenbait arazo ikusten ditut...

52 (G2EA0): Bai, nik hor... Eh, nabaritu deusat. Nik ikusten deusat ez dakiela ze atzamar kendu. Adibidez, kenketa batean, ez? 5-2. Ez daki... Ez dau ulertzen bardin dala ze atzamar kendu.

53 (T2EA2): Hori da...

54 (G2EA0): Izkinakoa edo barrukoa... Orduan, nik uste dot bere buruan zenbakiak ez dekozala ondo... nahastuta dekozala... Ez dekozala ondo estrukturatuta. Adibidez, berarentzako 5 holan da (eskuarekin haurrak egiten duena imitatu). 5 ezin da izan holan (bi eskuetako atzamarrekin 5 zenbakia adierazi). Osea berarentzako, zenbaki bat bi eskuetan badaukazu, da 5 baino handiagoa dala. Orduan hor, nik bai nabaritu deusat ez dauala ulertzen edo ez dekola barneratuta, eh... Ba hori, ez? Azken finean bardin dala ze atzamar kendu edo ze atzamar gehitu, gauza dala zenbat gehitzen edo kentzen dozuzan. Berak uste dau, nik uste, dauzela atzamar konkretu batzuk eragiketa bakoitzerako, ez? Dagoela metodo bat edo, eragiketa bakoitzerako edo batuketa bakoitzerako. Orduan berak zalantzak dekoz, ze atzamar gehitu, kendu edo...

55 (T2EA2): Egia da, eh... Batuketak edo kenketak egiterako momentuan, zenbakiak edo atzamarrak erabiltzen ditugunean, frustratzen dela pixkatxo bat. Baina egia esanda,

objektuak erabiltzen ditugunean, hau da, margoak edo errotulkiak erabiltzen ditugunean, oso ondo egiten duela, ulertzen duela $5+2=7$ dela, 5 objektu jarri behar dituela leku batean, 2 bestean...

56 (G2EA0): Bai, bai. Gero objektuakaz oso ondo egiten dau, bai. Nik etxean eta holan be ikusi dot eta egin dot beragaz, ez? Ikusita kostatzen jakola... Eta objektuakaz bai. Baina hori... Atzamarren kontua ez deko...

57 (T2EA2): Horregatik nire ustez, ahulgune hori indartzeko edo hobetzeko, erregletak erabiltzea egokia izango litzateke. Berak pixkanaka-pixkanaka kontzientzia pizteko eta atzamarrekin gero zailtasunik ez izateko.

58 (G2EA0): Bai, nik pentsatuta neukan, eh? Hartzea edo polikuboak edo erregletak, hori lantzeko eta indartzeko. Baina hori, galdetu nahi neutsun a ver zelan ikusten dozun zuk...

59 (T2EA2): Bai, hori... Ba nire ustez erregletak erabiltzea egokiena izango litzateke. Horrela hobetuko du pilo bat.

60 (G2EA0): Bale.

61 (T2EA2): Eta matematikarekin amaitzeko, esatea Peredagaz landutako edukiak oso ondo barneratu dituela.

62 (G2EA0): Bale.

63 (T2EA2): Orduan, matematikatik indartzeko edo... Batuketak eta kenketei caña sartuko diegu...

64 (G2EA0): Bai, hor mugitzen gara.

65 (T2EA2): Etorkizunari begira, Lehen Hezkuntzari begira, ba pixka bat... Ondo ailegatzeko.

66 (G2EA0): Ados.

67 (T2EA2): Xakeko saioetan gelako erritmoa jarraitzen du, baina orain hasi dugun gaiari dagokionez, zenbait zailtasun ikusten ditut. Eh, hasi gara erregina eta zaldia lantzen. Erregina oso ondo erabiltzen du, nahi duen lekurantz mugitzen du, beste karratuetara mugitu daitekkelako...

68 (G2EA0): Bai, ulertu dau dinamika, ez?

69 (T2EA2): Baina zaldiarekin zenbait arazo izaten ditu. Teoria oso oso ondo barneratu du, baina praktikan jartzerako momentuan, eh... Arazoak ikusten ditut.

70 (G2EA0): Zelan teoria barneratu duela?

71 (T2EA2): Badaki laugarren karratua egin behar duela mugimendua, hau da, L itxura bat egin behar duela zaldia mugitzeko. Baina zaldia mugitzerako momentuan ba... Eh... Karratu moduko bat egiten du...

72 (G2EA0): Osea badaki...

73 (T2EA2): Hori da...

74 (G2EA0): Buruz daki, baina gero ez daki praktikara eroaten.

75 (T2EA2): Badaki zein dan zaldia dekon mugimendu hori, baina ez daki praktikara eroaten... Orduan, mugimendua egiterakoan ez du L itxura hori irudikatzen.

76 (G2EA0): Bai, bueno nik esaten deusat, eh? Etxean askotan, eh... 1,2,1 egiteko edo 1,2 eta beste aldera. Baina nik uste bera liatzen dala edo nahasten dala... Berak esaten deusta, andereñok gelan esaten dauela 4 zenbatzeko. Orduan, claro... Nik etxean 3 edo 1,2 eta beste aldera esate deusat, eta claro... Nahasten da eta... Nik uste hor be bai arazoak dekozala, ez dauelako barneratu edo ez dauelako ulertu ondo...

77 (T2EA2): Bueno, berez, esatea hori... Erregina barneratu duela oso oso ondo, eta azkenean zaldiarena be bai praktikarekin lortuko da. Berak badaki L itxura egin behar duela, beraz, eh... Gero eta saio gehiago egiterako momentuan, ba oso ondo barneratuko du, nire ustez. Hor egin dezakeguna da, xakera jolastu eta bueno... Zugaz pixkatxo bat egitea edo holako zeozer...

78 (G2EA0): Bai, joerak zuzentzea...

79 (T2EA2): Hori da...

80 (G2EA0): Azkenean hartu dau ohitura, buruan sartu jako holan dala eta...

81 (T2EA2): Eta ez du kenduko...

82 (G2EA0): Bai.

83 (T2EA2): Bueno eta robotikako dinamika oso oso ondo jarraitzen du, ez deko arazorik... Eta horretan ez diot arazorik ikusten.

84 (G2EA0): Bale.

85 (T2EA2): Esatea alderdi positiboei dagokionez, ba oso pozik egoten dela, beti irribarre batekin... Eh... Dinamikak jarraitzen ditu, eh... Badaki errutinetan zer egin behar dugun, badaki goizeko korroan zer nolako pausuak jarraitzen ditugun: menua idazten dugula, bai data, urtea, hilabetea... Danetarik daki eta parte-hartze maila oso altua da. Eh... Korroan gauzanean eta galderaren bat egiten dudanean, eskua altxatu eta gogotsu parte-hartzen du... Ez deko inolako arazorik, nire ustez.

86 (G2EA0): Bale.

87 (T2EA2): Gero, komentatu duguna... Eh, hobetzekoak. Ez dira alderdi negatiboak, azkenean hobetzekoak dira, eta hobetuko ditugu. Ba matematika arloari dagokionez, eragiketak, hau da, batuketak eta kenketak hobetu behar ditugu.

88 (G2EA0): Bai.

89 (T2EA2): Azkenean, atzamarren arazo hori edo atzamarrekin frustratzen dela... Ba lortuko dugu erregletak erabiliz edo dena delakoa...

90 (G2EA0): Bai, batuketak eta kenketanak nauka ni arduratuta, ikusten dodalako jo ba... A ver normala da, ez? Gauza batzuk hobeto egitea eta beste batzuk ba gehiago kostatzea. Baina bai ikusten dot zailtasun nabarmen bat dekola arlo horretan, ez? Orduan bai, landuko dot beragaz eta arreta jarriko dot aspektu horretan.

91 (T2EA2): Hori da, bai ikastolan bai etxean hori indartzea egokiena izango da (H2)(r)entzat, azkenean lortuko duelako. Eta gero bueno, zaldiaren mugimendua be bai, eh... Hobetu beharra dago.

92 (G2EA0): Bale, bai.

93 (T2EA2): Zeozer dekozu zuk komentatzeko edo? XXX.

94 (G2EA0): Ba bueno nik neukan pentsatuta galdetzea hori... Trazuarena. Baina bueno, komentatu dogu lehen, ez?

95 (T2EA2): Hori da...

96 (G2EA0): Hobetu dala... Oraindino dekoz...

97 (T2EA2): Falta jako zeozer...

98 (G2EA0): Hori da, dekoz gauzatxu batzuk hobetzeko, baina bueno... Hobera badoa, eh... Ba behintzat, eh... Pozten naz. Eta gero beste alde batetik, idatzizko produkzioak. A ver, nik zalantza daukat... Eh... Bera etxean edo eskolaz kanpo, zerbait idazten hasi behar da bere kabuz?

99 (T2EA2): Bueno, egokiena izango litzateke idazten hastea. Izan ere, 5 urteko gelan dau eta LHn gero idaztea eh... Pilo bat eskatuko zaio, etxeko lanak izango ditu idazterako momentuan... Baina nire ustez, ez zaio derrigortu behar. Motibatu behar duzu idaztera, inoiz ez derrigortu. Bai, pentsatu behar dugu Lehen Hezkuntzan eh, etorkizun hurbil horretan idatziko duela, baina ez zaio derrigortu behar.

100 (G2EA0): Ez, berak berez ez dau eskatzen, eh? Osea... Berak etxean ez dau inoiz eskatu, baina gauza da eh... Bueno, patatana, hori komentatu deusudana lehen, baina kasu puntual horretan. Normalean ez dau idaztea eskatzen. Baina nik zalantza daukat, ez? Claro, 5 urteko gelan egonda eta, ba ikusten dot apur bat alde horretatik floyito doala edo ez dakiela oraindino ezebez idazten, baina bueno, hori... Ez dauala interesik erakusten, orduan hori galdetu nahi neutsun, ia nire aldetik hasi beharko nintzan fomentatzen edo eh... Motibatzen alde horretatik...

101 (T2EA2): Bitu! Nire ustez, adibidez, futbola gustatzen bajako, egin behar dozuna da eh... Esatea eh... Athletic-eko jokalarien izenak idatziko ditugu. Haien argazkiak hartu eta esan: “Hau nor da?”. Ba fulanitoren izena idaztea. Edota, eh... Erosketak egin behar badituzu, zerrenda egiten dogu normalean, ba zerrenda hori zurekin idaztera motibatu edo esatea: “Bueno gaur gailetak erosi behar ditugu, idatziko dogu ze gaileta erosiko ditugun?”. Eta berak idaztea G A I L E T A K.

102 (G2EA0): Bai, azkenean eh... Engainatzea ez, baina bueno, bai... Bere intereseko gauzetatik abiatuta, ba... Horretan animatzea, ez?

103 (T2EA2): Hori da! Eh, beste kontu bat kontuan hartzekoa... Eh, badakizu idazketa-fase desberdinak dauzela, errespetatu behar direla... Orduan, normalean ez du ondo idatziko, igual... **(H2)** oraindino ez dago azkeneko fasean, orduan, nahiz eta gailetak esan, berak G A T A idatziko du, ez du dana idatziko. Eh, ez esan txarto dagoenik, hori errespetatu behar den fase bat da eta berak pasa beharko du. Baina nire ustez, hori... Asko gustatzen zaio futbola, beraz futboleko jokalarien izenak idaztea, taldeen izenak, zurekin zerrenda egitea... Gainera, orain Gabonak ez dauz, baina bere urtebetetzea ailegatzen denean edo bere urtebetetzean be bai, motibatu behar jako. Batez ere, etorkizunari begira.

104 (G2EA0): Bai.

105 (T2EA2): Oraintxe bertan, nik ez diot derrigortuko ez idaztera ez edozertara, baina hurrengo mailan...

106 (G2EA0): Bale, bale. Ez, ez da derrigortzearen, eh? Baina bai hori... Alde horretatik ia motibazioa bultzatu edo egin behar dodan...

107 (T2EA2): Hori da, intereseko gaiak bilatu eta intereseko gai horiek erabili aitzaki bezala, gero idazteko.

108 (G2EA0): Bale. A ver, eh...

109 (T2EA2): Adibidez hori, patatak motibatzen diola pila bat idaztera ba motibatu ahal duzu ba gaurko menua idaztera, edo esatera: “Zer izan duzu gaur jantokian bazkaltzeko? Venga! Idatziko dugu nik jakiteko”. Eta idaztea janarien izenak edo...

110 (G2EA0): Bale, perfecto.

111 (T2EA2): Zalantzaren bat gehiago edo?

112 (G2EA0): Ez, bueno... Gero komentatu nahi neutsun gauzatxu bat. Eh... A ver, gaur ez dau agenda ekarri.

113 (T2EA2): Ez, ez diot ikusi egia esanda.

114 (G2EA0): Ba bueno, ez dau ekarri etxean atzo oso txarto portatu zalako eta nik esan neutsalako ba agendan idatziko nebala oso txarto portatu zala eta zuk irakurriko zenduala. Eta berak, zu ez hasarratzeko, esan eban agenda ez ebalu ekarriko eta horrela

zu ez zinela enteratuko eta dana ba... Etxean geratuko zala, ez? Eta bueno, nik esan neutsan ba bere kargu uzten nebala, pentsatzen nebalako egunean zehar bere kontzientziak ez eutsala itziko gezurra esaten, eta azkenean ba... Berak be onartuko ebala gezurra esan dauala eta agenda ekarri dauala edo... Bueno, ez dakit ekarri dauan, baina bueno, gure dot esan... Ez dauela ekarri, zergatik? Txarto portatu dalako etxean. Baina antza danez, dinoztasunagatik, eh... Kontzientziak ez deutsa... (Barreak).

115 (T2EA2): Ez... Galdetu diot, eh? Izan da bakarra ez duena agenda ekarri, beraz, esan diot: “(H2), zergatik ez dozu agenda ekarri?”. Eta esan deusta amak ez duela motxilan sartu. Beraz, bueno nik sinistu diot normalean oso zintzoa delako eta ez duelako gezurrik esaten inoiz, baina bueno...

116 (G2EA0): Bai, horregatik neukan nik esperantza edo... Hori... Ze normalean gauza horrekaz, ez dau inoiz gezurrik esaten, ez da holakoa bera... Orduan, harritu nau pila bat. Pentsatzen neban zuri egia esango eutsula.

117 (T2EA2): Bueno, egon lasai. Hasi gara irakurtzen neskatila gezurti baten ipuina eta gorputzeko atal desberdinak hasten zaizkio. Orduan, nik eh... Gelara joango naizenean irakurriko dot ipuina eta galdetuko diet: “Zuek gezurrik esaten dituzue?”. Eta batzuk hasiko dira esaten baietz, beste batzuk ezetz... Eta (H2) begiradarekin jarraituko dut, ea zeozer esaten didan. Eh, normalean gezurrik esaten badituzte, ipuin horregaz...

118 (G2EA0): Bale, bale.

119 (T2EA2): Esaten dituzte, beraz, komentatuko dut zeozer eta berarekin hitz egingo dut.

120 (G2EA0): Jo, ba bai. Ze hori, geratu naz... Oin momentuan... Hori, arduratuta. Ez da bere ohiko jarrera.

121 (T2EA2): Badakizu beti amaxu edo aitaxuren errua izaten dela zeozer ahazten bazaigu, baina bueno... (Barreak).

122 (G2EA0): (Barreak).

123 (T2EA2): Nik galdetuko diot.

124 (G2EA0): Bale, ba ez daukat beste zalantzarik edo...

125 (T2EA2): Bale.

126 (G2EA0): Eskerrik asko, andereño!

127 (T2EA2): Bale, arazoren bat badago, badakizu telefonoa dagoala eta deitukotsut. Asi que... Eskerrik asko ba!

128 (G2EA0): Zuri.

129 (T2EA2): Agur!

6. ERANSKINA: Irakasle ez-aditu eta sasi-guraso arteko 3. elkarrizketa.**Data:** 2018/04/20**Iraupena:** 11:31

Elkarrizketa egiteko arrazoia: Ikerketa-lan honetarako ikergaia sortzea eta **(H3)** haurren ebaluazioa egitea (elkarrizketa errealean oinarrituta sortutako ikasle-fitxatik abiatuta).

Parte-hartzaileak: Tutorea **(T3EA3)** eta ama **(G3EA0)**.

Elkarrizketaren kokapena:



TRANSKRIPZIOA:

1 (T3EA3): Kaixo, egun on!

2 (G3EA0): Egun on, andereño!

3 (T3EA3): Bueno ba... Eh, komentatuko dizut apur bat zelan doan?

4 (G3EA0): Bai.

5 (T3EA3): Eh... Lehenik eta behin, bueno ba hori autonomia eta gelako dinamikan, ba benetan oso pozik dator ikastolara. Ikusten zaio gelan disfrutatzen dauela eta... Eta dinamikan ere parte-hartzen du. Hori bai, eh... Askok hitz egiten du...

6 (G3EA0): Bai, ez?

7 (T3EA3): Eta hori... Oso espontaneoak denez... Bai, askotan eh... Eh... Momentu guztian edo hitz egiten egon nahi du. Adibidez, besteek hitz egitean ere, eh, bere iritzia ematen du edo bere esperientzia kontatzen du.

8 (G3EA0): Osea arauak ez dauz... Txandak ez dauz errespetatzen orduan...

9 (T3EA3): Ez, ez... Ez da aspektu negatiboa ere ez. Baina hori, kostatu egiten zaio hori... Ba txandak errespetatzea. Makinista denean ere adibidez, ba hori... Andereño rola, eh, betetzea asko gustatzen zaio, besteei isiltzeko esaten die...

10 (G3EA0): Gustatzen jako pilo bat agintzea, bai.

11 (T3EA3): Bai. Eta hori, baina hori... Eh, gero ere autonomia maila egokia dauka orokorrean. Bere arroparekin ere ondo moldatzen da, eh... Komunean bakarrik moldatzen badaki eta gelako espazioetan eta, nahiko autonomoa da.

12 (G3EA0): Ados.

13 (T3EA3): Gero jantokian ere oso ondo moldatzen da, eh... Ez dauka inolako arazorik jateko, ezta lagunekin ondo egoteko. Batzerako momentuetan ere, eh, prestutasuna azaltzen du batzeko. Eta hori, bueno arauai buruz, ba bai, arauak errespetatzen ditu, baina hori, esandakoa, ba... Txandak eta...

14 (G3EA0): Bai, txandak... Ba ikasi behar dau!

15 (T3EA3): Bai, errespetatzea... Hori kostatzen zaio apur bat.

16 (G3EA0): Ba emon caña, eh?

17 (T3EA3): Gero... Ba beste lagunekin ondo ikusten dut. Harremanei dagokionez, eh... Irakasleekin ere harreman oso zabala dauka. Eh... Lagunekin ere. Eta hori, gehienbat ikusten dut neskekin jolasten duela, eta ez mutilekin.

18 (G3EA0): Bai, bueno... Es que egia da hemendik kanpo egoten dala beti mutilekaz. Orduan, nik uste dot ikastolan igual bilatzen dauela oreka hori. Ze gure inguruko umeak, bere adinekoak, dira danak mutilak. Orduan, igual ikastolan bilatzen dau ba... Beti dagoanez mutilekaz, ba neskakaz be bai, eh... Harremantzea igual.

19 (T3EA3): Bai, izan daiteke. Eh... Gelan gehienbat, (H3K1)(r)ekin, bere lagun minarekin, hori... Beti batera daude, ez dira banatzen.

20 (G3EA0): Bai, esaten dau gure etxera etorriko dala bizitzera.

21 (T3EA3): (Barreak).

22 (G3EA0): Eta esaten deusat: “Ba igual galdetu behar deusazu...”. Baina ez, ez... Etorriko dala eta punto esaten dau.

23 (T3EA3): Eta hori... Gero talde moduan ere, ba kideekin oso ondo ikusten dut, ondo moldatzen da... Beti laguntzeko prest dago, gainontzeekiko enpatia erakusten du, eta hori oso garrantzitsua dela uste dut.

24 (G3EA0): Bai, begiraleek eta be bai... Udalekuetan eta... Beti esaten dostie, eh? Oso zabala dala, beti dagoela prest... Eta hori, enpatiana, esan dozuna... Nik gainera, ikusten deusat agobiatu egiten dala norbait txarto ikusten dauanean, orduan... Bai, bai.

25 (T3EA3): Bai.

26 (G3EA0): Alde horretatik ikusten jako...

27 (T3EA3): Hori, gero... Pues hori, 5 urteko ume gehienek egiten duten bezala, ba hori... Batzuetan chivatu egiten da.

28 (G3EA0): (Barreak).

29 (T3EA3): Baina bueno, hori betikoa...

30 (G3EA0): Bai, bai.

31 (T3EA3): Eta gero, ba (H3K2)(e)gaz... Uf! Elkartzen direnean, hor izaten dituzte arazoak. Eta hori... Gero eta gehiago esan ez elkartzeko, gero eta gehiago elkartzen dira. Baina bueno...

32 (G3EA0): Bai, gainera berak esaten dau (H3K2) dala beragana doana. Baina bueno, badakizu...

33 (T3EA3): Eta hori, harremani dagokionez, hori... Ez dut ikusten arazorik.

34 (G3EA0): Bale.

35 (T3EA3): Gero, hizkuntzari dagokionez, eh... Ba hori, oso ondo berba egiten dau, oso ondo ulertzen zaio eta euskaraz ere hitz egiten dau, askori kostatzen zaiela. Eta euskeraz ere, ondo ulertzen dau. Gero gainera, hasi gara orain apur bat pues hori... Idatz-irakurketa metodoarekin, eta dinamika ondo jarraitzen dau eta landutako fonemak ere ba... Era egokian edo, birpasatzen ditu. Hasiera batean igual, fonema desberdinak nahastuta izan ditu, adibidez B eta L edo...

36 (G3EA0): Bai.

37 (T3EA3): Baina hori, gero solte lantzen ditugunean eta, ba... Ya ez du zailtasun handirik adierazten.

38 (G3EA0): Osea fitxak eta, irakurtzeko gai da?

39 (T3EA3): Bai.

40 (G3EA0): Nik nabaritu deusat, oportetan eta holan, egon da jakin-min handiagaz eh... Irakurtzeko asmoagaz. Eh... Baina ez dau nahi fitxak irakurri, berak nahi dau bizitzako, egunerokotasuneko gauzak irakurri.

41 (T3EA3): Claro...

42 (G3EA0): Etiketak, ez dakit zer, bestea... Orduan, bai. Hasi da jakin-min horregaz, orain arte ez dau erakutsi, baina orain bai... Bai ikusten deusat, bai.

43 (T3EA3): Claro. Ba bai, hori azkenean... Egokia izango da. Eta gero, ba hori... Eh... Ingelesean ere, ulermen egokia erakusten du, errutinak egiten ditugunean eta hiztegia errepikatzen duenean ere ikusten da barneratzen dituela hitzak eta. Oso parte-hartzailea da gainera, eta oso jarrera egokia dauka ingeleseko geletan.

44 (G3EA0): Ados.

45 (T3EA3): Eh... Gainera, hori... Askotan galderak ere erantzuten ditu, esaldi laburretan bada ere, ba... Hori... Badaki galdera asko erantzuten.

46 (G3EA0): Ados.

47 (T3EA3): Eta bueno, gero musikan ere, eh... Abestiak eta dantzak errepikatze eta barneratzeko ez dauka inolako arazorik. Eh... Erritmoak jarraitzen badaki eta berak bere

erritmo propioak sortzen dauz ere. Parte-hartzeari dagokionez, ez dago arazorik, eh... Parte-hartze maila egokia da. Eta gainera, bere jarrera ere musika geletan, ba... Izaten da egokia... Eh... Biolinarekin aritzen garenean, ba hori, oso gustura ikusten zaio eta jarrera egokia dauka. Eta hori, ikusten zaio ba hori... Eh... Ikastolako hezkuntza ez-formaleko musika saioetara doala eta hori igual eragin positiboa izan dezakeela gero musika geletan edo, hobeto egoteko...

48 (G3EA0): Bai, nik, egia da ikusten dodala oso pozik musikan, eh? Oso gustora doa. Uste dot oso desberdina dala hezkuntza formaleko saioa eta hezkuntza ez-formalekoa, baina nik uste bietara... Gainera berak esaten dau, ez? Oso gustora doala eta oso pozik dagoala.

49 (T3EA3): Eta bueno, gero... Psikomotrizitatean ere, eh... Ordu bat ematen du maisuarekin eta beste bat ba nirekin, tutorearekin. Eta hori, maisuarekin ere oso ondo egiten du dena, jarrera egokia eta burutzen dituen ariketak oso ondo egiten ditu.

50 (G3EA0): Bale.

51 (T3EA3): Eta nirekin ere, oso ondo egoten da. Eta bueno, hemen eh, arazo bakarra edo, ba hori... Asma dela eta, ba hori... Askotan katamarka egoten dela, eztulka eta, eta nekatu egiten da. Baina bueno, halan da be, ikusten zaio hobera doala, eta... Eh... Badaezpada, saioa hasi aurretik *floxotide*a hartzen du beti eta orduan XXX...

52 (G3EA0): Bai, hori galdetu behar neutsun. Asma nabari jako orduan...

53 (T3EA3): Bai, eztula eta, bai... Baina bueno, eh, gero eta hobeto, hori bai...

54 (G3EA0): Bai? Igarri dozu hobekuntza?

55 (T3EA3): Bai.

56 (G3EA0): Tratamendu barriagaz eta hori... Bale, ederto! Eskerrik asko!

57 (T3EA3): Eta bueno, gero matematikan, hasi garela orain... Eh... Zenbakien grafia era egokian egiten du... Lehen, hori, adibidez 8a kostatzen zitzaion, eta...

58 (G3EA0): Infinito moduan, ez?

59 (T3EA3): Infinito moduan adierazten zuen! Baina orain ya ez, hori barneratu du... Posizioa. Gero, zenbaketa... Gora eta behera era egokian egiten du, oso ondo gainera. Eta batuketak ere, oso ondo, asko gustatzen zaizkio gainera, batuketak egitea...

60 (G3EA0): Bai, bai, pilo bat! Aitagaz etxean egiten dauz pilo bat, pilo bat...

61 (T3EA3): Bai, hori kontatzen du, etxean asko lantzen dituela eta.

62 (G3EA0): Eta eskatzen dauz zenbaki altuak gainera, eh?

63 (T3EA3): Bai, hori esaten du, askotan gelako ariketak berarentzat oso errezak direla.

64 (G3EA0): Ez, ba esaiotzazu...

65 (T3EA3): Trankiltzeko! (Barreak).

66 (G3EA0): Hori bere maila dala eta...

67 (T3EA3): (Barreak).

68 (G3EA0): Bai, bai, argi itzi, eh?

69 (T3EA3): Gero, hori... Peredagaz landutako edukiak ere oso barneratuta daukaz.

70 (G3EA0): (Baiezkoa emanez, ahoarekin zarata egin).

71 (T3EA3): Eh... Matematikan... Ba bueno, es que... Indartu beharrekoa edo... Nik ez nuke ezer azpimarratuko. Uste dut gehienetan oso ondo moldatzen dela.

72 (G3EA0): Bale, ados.

73 (T3EA3): Eta gero... Eh, xakeko saioetan edo, ba bueno, gelako erritmoa jarraitzen du, baina askotan... Jokaldi zailak direnean, ba ulertzea kostatzen zaio. Baina bueno, prozesu osoa orokorrean, ondo ulertzen du.

74 (G3EA0): A ver, egia da ez jakola ezebez gustatzen xake, eh?. Eta berak esaten dau, eh? Ez jakola ezebez gustatzen eta etxean xakea daukagu eta ez dau ikusi gure bez egin.

75 (T3EA3): Bai, hori...

76 (G3EA0): Osea que alde horretatik be bai, bueno... Moldatzen bada... Baina gorroto dau, ez jako gustatzen ezebez.

77 (T3EA3): Nabaritzen zaio, baina bueno gero orokorrean landutako piezen mugimenduak edo... Ba hori... Badakizki. Orduan...

78 (G3EA0): Bai, bai, jarraitzen dau ildo, ez?

79 (T3EA3): Ondo... Bai. Eta gero, hori... Robotikan ere, eh... Dinamika oso ondo jarraitzen du. Bere bikotekidearekin oso pozik dago. Egia da oso desberdinak direla haien artean, (H3) oso berbatia da eta gero (H3K3) aldiz, ba askoz isilagoa. Baina bueno, askotan komunikazio-sustatze hori, kostatzen zaie, baina... Laguntza behar duenean, hori... Ez du inolako arazorik eskatzeko, beraz, oso pozik.

80 (G3EA0): Bai, robotika gustatzen jako, eh? Xake da eh... Ez dauena gustoko para nada... Eta bueno, berak nahiago dau marrazkiak egitea eta hori... Eta tabletaz egoten danean, bueno... Super pozik dago. Baina bueno, robotika... Egin dezake, osea... Gustora doa robotikara be bai.

81 (T3EA3): Bueno, ba hori. Orokorrean esatea hori... Bere alderdi nabarmenenak edo, direla oso parte-hartzailea dela, besteei laguntzeko beti prest dagoela beti... Eta hori, esan dizudana, hori... Igual alde txarrena edo, ba hori... Espontaneotasun horrek ba

oztopoak sortzen dizkiola askotan, ba gauzak lasaitasunez eta txukuntasunez egiteko, oso urduria delako. Baina bueno...

82 (G3EA0): Da chapucera bat! Ez dauka txukuna izateko interesik, momentuz ez dau erakusten. Zenbat eta azkarrago hobeto...

83 (T3EA3): Bai, hori da... Amaitu...

84 (G3EA0): Eta zenbat eta zikinago be bai, ba hobeto! Nik uste... Baina bueno...

85 (T3EA3): Bai. Eh... Oso ondo, gainontzekoa oso ondo. Eh... Bueno edozein zalantzarik badaukazu komentatzeko...

86 (G3EA0): A ver, printzipioz ez daukagu ardura berezirik. Ikusten dogu umea oso pozik doala gelara, ikastolara orokorrean... Eta aurrerapenak egiten dauzala. Bai ikusten dot igual, ba hori, ez? Komentatu doguna, ez? Kostatzen jakozan gauzak, ez dauz gustoko. Orduan, ez dauz egiten eta punto. Baina ikasi behar dau be bai, ba gustatzen ez jakozan gauzak ba azkenean... Egin behar dauzela, ez?

87 (T3EA3): Bai, hori egia da. Gustatzen ez zaionean zeozer kostatzen zaio askoz gehiago egitea. Baina bueno, gero desberdina da ere etxean edo eskolan behartzea.

88 (G3EA0): Bai, bai, guztiz desberdina dala uste dot nik be bai, eh? Ez da berdina, para nada... Gainera umeak, argi deko gelan nahi dauala zu pozik egotea. Berak esaten dau egiten dauala egiten dauana (T3EA3) pozik egoteko. Orduan, claro... Ez da arrazoirik onena, baina bueno, 5 urtegaz behintzat...

89 (T3EA3): Bai, bueno... Hasteko...

90 (G3EA0): Aurrera badoa, ba bai... Ba berarentzat arrazoi ona bada, ba tira... Eta bueno ba, sin mas, a ver datorren urtean zelan jarraitzen dauan... Ia Lehen Hezkuntzan zelan moldatzen garen...

91 (T3EA3): Bai, nik uste dut Lehen Hezkuntzan moldatuko dela. Eta gainera hasiko da hobetzen segur aski eta ya Lehen Hezkuntzan zentratuago egongo da. Orduan, lasai...

92 (G3EA0): A ver, a ver...

93 (T3EA3): Ez da arazorik egongo.

94 (G3EA0): Ba hori... Eskerrik asko orduan!

95 (T3EA3): Espero dugu dena holan jarraitzea eta bueno, pues egongo gara kontaktuan.

96 (G3EA0): Bale, eskerrik asko!

97 (T3EA3): Agur!

7. ERANSKINA: Ikasle-fitxak.

(H1)

AUTONOMIA / GELAKO DINAMIKA		ROBOTIKA	
Gelan ziurtasuna adierazten dau.	<input type="radio"/>	Arauk errespetatzen dauz.	<input type="radio"/>
Korroan adi dago.	<input type="radio"/> *	Dinamika barneratu dau.	<input type="radio"/>
Gelako ekintzetan parte hartzen dau.	<input type="radio"/>	XAKE	
Ahalegintzen da.	<input type="radio"/> **	Gustura doa.	<input type="radio"/>
Bere gauzetaz arduratzen da.	<input type="radio"/> . <input type="radio"/> ***	Oinarrizko ideiak barneratzen dauz.	<input type="radio"/>
Bere lanak txukunak dira.	<input type="radio"/> ****	MATE	
Arauk errespetatzen dauz.	<input type="radio"/>	Landutako kontzeptuak barneratzen dauz.	<input type="radio"/>
Autonomia maila egokia dauka.	<input type="radio"/> . <input type="radio"/>		

*Batuetan despistatu ahal da, normala den bezala.
 **Gehiago ahalegindu ahal da. Ez da alperra, baina batuetan gauzak azkar amaitzeagatik ez da askorik ahalegintzen.
 ***Arduratsua da, bere betebeharrak betetzen ditu.
 ****Egunaren arabera, batuetan oso zikina da (zerbait zaila iruditzen zaionean edota egun txarra duenean).

Xake: Batuetan piezaren bat nahastu egiten du, baina orokorrean prozesua ulertzen du.
 Mate: Kontzeptuak, magnitudeak etab. barneratzen ditu. Zenbakiakiko interes handia erakusten du.

HARREMANAK		
Irakasleekaz jarrera espontaneo.	<input type="radio"/> *	*Normalean harremana naturala da, baina nirekin batuetan lotsatu egiten da. Zerbait gertatzen zaionean, nik deitu behar dut zer gertatu den kontatzeko (nahiz eta aspektu honetan hobera egin duen).
Lagunekaz harremantzen da.	<input type="radio"/> . <input type="radio"/>	
Nahiak, desioak, beharrianak adierazi.	<input type="radio"/> **	**Azkenaldian ez da lehen bezala blokeatzen. Urduri dagoenean edo egoera bereziren baten pasatu ahal zaio.

HIZKUNTZA		
Berba egiterakoan ulertzen jako.	<input type="radio"/> . <input type="radio"/> *	*Asko hobetu da, lehen baino askoz lasaiago hitz egiten du, ez hain arin. **Euskaraz gehiago ahalegindu ahal da.
Azalpenak argiak dira (ama hizkuntza).	<input type="radio"/>	
Euskeraz ahalegintzen da.	<input type="radio"/> **	

INGELESA		MUSIKA	
Urmen egokia erakusten dau.		Abestiak eta dantzak era egokian errepikatu eta barneratzen dauz.	<input type="radio"/> . <input type="radio"/>
Errutinak eta hiztegia errepikatu eta ikasten dauz.		Erritmoak jarraitu eta sortzen dauz.	<input type="radio"/>
Parte hartzailea da.		Parte hartze maila egokia dauka.	<input type="radio"/> . <input type="radio"/>
Jarrera ona erakusten dau.		Jarrera egokia erakusten dau gelan.	<input type="radio"/>
Galderak erantzuten dauz esaldi laburren bitartez.		Biolinarekiko jarrera egokia dauka eta gustura aritzen da.	<input type="radio"/> . <input type="radio"/> *
		*Orokorrean ume guztiak oso pozik daude biolinarekin.	

Aurreko batzarreko akordio plangintza

Gurasoen kezak

Ezagutza anizkoitzak

Bisual-Espaziala
 Logiko-Matematikoa
 Berba-Linguintikoa
 Interpersonala
 Intrapersonala
 Zinestesikoa
 Naturalista
 Musikala
 Espirituala

Batzar honetako akordio plangintza

Maitekorra.

Lagun ona.

Gelan laguntzeko prest.

Burugogortxo.

Mugimenduetan ziurtasuna: Oso ondo.
Gustura doa: Oso ondo.

O.O → Oso ondo

O → Ondo

L.B → Lortu barik

(H2)

AUTONOMIA ETA GELAKO DINAMIKA		
Pozik dator ikastolara.	O.O	Berdin jarraitzen du: oso ondo.
Gelan disfrutatzen dau.	O.O	
Dinamikan parte hartzen dau.	O.O	
Korroan adi dago.	O.O	
Bere arrokekin ondo moldatzen da.	O.O	
Komunean bakarrik moldatzen da.	O.O	
Gelako espazioetan autonomia da.	O.O	
Jantokia.	O.O	
Batzen dau.	O.O	
Arauk errespetatzen dauz.	O.O	

HARREMANAK		
Irakasleekaz harreman zabala dauka.	O.O	Betiko lagunekin egoten jarraitzen du. Orain (H2K2)(r)ekin egoten da gehiago, baina orokorrean betikoekin jarraitzen du. Gauzak konpartitzen ditu eta bere kabuz konpontzen da.
Lagunekaz harremantzen da.	O.O	
Egoki jolasten dau.	O.O	

HIZKUNTZA			
Berba egiten dau.	O.O	Idatz-irakurketa metodoaren dinamika jarraitzen dau.	O.O*
Ulertzen joko.	O.O	Landutako fonemak era egokian birpasatzen dauz.	O.O*
Euskeraz hitz egiten dau.	O.O	*Lehenengo hiruhilabeteen moduan jarraitzen du: oso ondo. Fonemak ezagutzen ditu eta oso ondo egiten ditu.	
Euskera ulertzen dau.	O.O	Hobetzeko aspektua: fonema batzuk egiterakoan noranzkotasuna eta trazua zaintzea. Adibidez, 'T' ez du ondo ixten eta 'L' ez du oso luzea egiten. Gainerakoak ondo egiten ditu: aurretik ikasitako 'A', 'E', 'I', 'O' eta 'U' asko zaintzen ditu.	

INGELESA		MUSIKA	
Ulermen egokia erakusten dau.	O.O	Abestiak eta dantzak era egokian errepikatu eta barneratzen dauz.	O.O
Errutinak eta hiztegia errepikatu eta ikasten dauz.	O.O	Erritmoak jarraitu eta sortzen dauz.	O*
Parte hartzailea da.	O.O	Parte hartze maila egokia dauka.	O.O
Jarrera ona erakusten dau.	O.O	Jarrera egokia erakusten dau gelan.	O.O
Galderak erantzuten dauz esaldi laburren bitartez. (5 urte)	O*	Biolinarekiko jarrera egokia dauka eta gustura aritzen da.	O.O
*Batuetan, esaldi laburren bitartez erantzuterako orduan tratatu egiten da.		*Agian dantza egitea ez zaio gustatzen. Hezkuntza ez-formaleko musika saioetan pilo bat hobetu da.	

Aurreko batzarreko akordio plangintza

Gurasoen kezkek

-
-

Ezagutza anizkoitzak

- Bisual-Espaziala
- Logiko-Matematikoa
- Berba-Linguistikoa
- Interpersonala
- Intrapersonala
- Zinestesikoa
- Naturalista
- Musikala
- Espirituala

Batzar honetako akordio plangintza

Oso pozik egoten da.

Dinamika jarraitu egiten du.

Parte-hartze maila altua du.

Batuketak, kenketak eta zaldia. Batez ere kenketak.

PSIKOMOTRIZITATEA

		Maisuaren arabera, bere jarrera oso ona da, ariketak oso ondo egiten ditu eta psikomotrizitate saiora oso pozik joaten da.

MATEMATIKA

Zenbakien grafia era egokian egiten dau.	O	Otik 9rako grafia landu dugu. 8-a infinitua bezala egiten du, eta 5-a eta 9-a batzuetan alderantziz egiten ditu. Orokorrean ondo moldatzen da, baina adierazitako zailtasunetan arreta jarri behar dugu.
Zenbaketa (gora eta behera) era egokian egiten dau.	O.O	
Batuketak egiten dauz.	L.B.	Nahiz eta batuketak egiteko burua eta eskua erabili, arazo gehiago ditu kenketekin (zein atzamar kentzearekin edo gehitzearekin nahasten da, ez daki zein gehitu edo zein kendu behar den). Objektuekin aldiz, eragiketak ondo egiten ditu, adibidez, errotuladore edo margoekin. Ahulgune hori indartzeko erregletekin lan egitea lagungarria izango litzaioke.
Peredagaz landutako edukiak barneratuta daukaz.	O.O	
Matematikan indartu beharrekoa.		Batuketak eta kenketak.
Xakeko saioetan gelako erritmoa jarraitzen dau.	O*	Orain erregina eta zaldia lantzen gaude. Erregina oso ondo erabiltzen du, nahi duen lekurantz eta nahi beste karratutan mugitu ahal dituelako. Zaldiarekin aldiz, arazoak izaten ditu: teoria oso ondo barneratu du (badaki 4 karratutan egin behar duela mugimendua, 'L' itxura izan behar duela eta karratu zurian hasen bada karratu beltzean amaitu behar duela). Pieza mugitzerakoan aldiz, mugimendua egiterakoan ez du 'L' itxura irudikatzen, bira antzekoa ematen du, karratu itxurako mugimendua egiten du. Beraz, arlo honetan hobetzeko aspektua honakoa da: zaldiaren mugimendua.
Xakean landutako piezen mugimenduak dakiz.	O*	*Ondo ipini diot, erreginarekin oso ondo moldatzen dalako, baina zaldiarekin arazoak dituelako.
Robotikako dinamika jarraitzen dau.	O.O	

O.O → Oso ondo

O → Ondo

L.B → Lortu barik

(H3)

AUTONOMIA ETA GELAKO DINAMIKA		
Pozik dator ikastolara.	O.O	Orokorrean oso ondo moldatzen da. <u>Nabarmendu beharrekoa:</u> <ul style="list-style-type: none"> - *Asko hitz egiten du. Oso espontaneo denez, bera hitz egiten egotea nahi du momentu oro. Adibidez, besteek hitz egitean, bera bere iritzia eman edo bere esperientzia kontatu behar du. Ez da aspektu negatiboa, baina kostatu egiten zaio txandak errespetatzea. - Makinista denean, andereño rola erabat betetzen du: besteei isiltzeko, ondo jesartzeko etab. eskatzen die. Asko gustatzen zaio. - **Orokorrean autonomia maila egokia dauka. - ***Txandak ez ditu errespetatzen (besteen txandan ere hitz egiten du).
Gelan disfrutatzen dau.	O.O	
Dinamikan parte hartzen dau.	O.O*	
Korroan adi dago.	O.O	
Bere arropekin ondo moldatzen da.	O.O**	
Komunean bakarrik moldatzen da.	O.O**	
Gelako espazioetan autonomoa da.	O.O**	
Jantokia.	O.O	
Batzen dau.	O.O	
Arauk errespetatzen dauz.	O.O***	

HARREMANAK		
Irakasleekaz harreman zabala dauka.	O.O	Orokorrean ondo moldatzen da: <ul style="list-style-type: none"> - Neskekin jolasten du, mutilekin ez. - (H3K1)(r)ekin (bere lagun minarekin) egoten da gehienetan. - Taldean, kideekin ondo moldatzen da. - Laguntzeko prest dago, gainerakoekiko enpatia erakusten du. - Batzuetan "txibatu" egiten da (5 urteko ume gehienak bezala). - (H3K2)(r)ekin ez elkartzeko, zenbat eta gehiago esan, gehiago egiten du. (H3)(e)k, beragana hurbiltzen dena (H3K2) dela esaten du.
Lagunekaz harremantzen da.	O.O	
Egoki jolasten dau.	O.O	

HIZKUNTZA			
Berba egiten dau.	O.O	Idatz-irakurketa metodoaren dinamika jarraitzen dau.	O.O
Ulertzen jako.	O.O	Landutako fonemak era egokian birpasatzen dauz.	O*
Euskeraz hitz egiten dau.	O.O	*Fonema desberdinak nahastuta lantzerakoan, desberdintzea kostatzen zaio (adibidez, batzutan 'B' eta 'L' nahastu). Solte lantzen ditugunean, ez du zailtasunik adierazten.	
Euskera ulertzen dau.	O.O		

INGELESA		MUSIKA	
Ulermen egokia erakusten dau.	O.O	Abestiak eta dantzak era egokian errepikatu eta barneratzen dauz.	O.O
Errutinak eta hiztegia errepikatu eta ikasten dauz.	O.O	Erritmoak jarraitu eta sortzen dauz.	O.O
Parte hartzailea da.	O.O	Parte hartze maila egokia dauka.	O.O
Jarrera ona erakusten dau.	O.O	Jarrera egokia erakusten dau gelan.	O.O
Galderak erantzuten dauz esaldi laburren bitartez. (5 urte)	O.O	Biolinarekiko jarrera egokia dauka eta gustura aritzen da.	O.O
		Ikastolako hezkuntza ez-formaleko musika saioetara doa; baliteke horrek eragin positiboa izatea hezkuntza formaleko musika saioetan.	

Aurreko batzarreko akordio plangintza

Gurasoen kezak

-
-

Ezagutza anizkoitzak

- Bisual-Espaziala
- Logiko-Matematikoa
- Berba-Linguintikoa
- Interpersonala
- Intrapersonala
- Zinestesikoa
- Naturalista
- Musikala
- Espirituala

Batzar honetako akordio plangintza

Oso parte-hartzailea da

Besteei laguntzeko prest dago

Espontaneotasunak, oztupoak sortzen dizkio gauzak lasaitasunez eta txukuntasunez egiteko. Oso urduria da.

PSIKOMOTRIZITATEA

		Ordu bat maisuak eman, bestea tutoreak. Maisuarekin dana oso ondo egiten dau: jarrera egokia erakusten du eta burutzen dituen ariketak oso ondo egiten ditu.
		Tutorearekin berdin: dana oso ondo.
		Asma dela eta, batzuetan katamarka dagoenean, ez tulka hasten da, nekatu egiten da. Hobera doala igartzen da, bada ez bada saioa hasi aurretik <i>flexotidea</i> hartzen du beti.

MATEMATIKA

Zenbakien grafia era egokian egiten dau.	O.O	Lehen 8-a infinitu moduan adierazten zuen, orain ez.
Zenbaketa (gora eta behera) era egokian egiten dau.	O.O	Bikain!
Batuketak egiten dauz.	O.O	Asko gustatzen zaizkio batuketak eta kenketak egitea, eta oso ondo egiten ditu. Etxean asko lantzen dituela esaten du, horregatik, ikasgelako ariketak berarentzat errazegiak direla dio.
Peredagaz landutako edukiak barneratuta daukaz.	O.O	
Matematikan indartu beharrekoa		Oso ondo moldatzen da.
Xakeko saioetan gelako erritmoa jarraitzen dau.	O.O	Jokaldi zailak ulertzea kostatzen zaio batzuetan, baina prozesua orokorrean ondo ulertzen du.
Xakean landutako piezen mugimenduak dakiz.	O.O	
Robotikako dinamika jarraitzen dau.	O.O	Bikotearekin ondo dago. Oso desberdinak dira: (H3) oso berbatia da eta (H3K2) aldiz, isila. Horregatik, batzuetan euren arteko komunikazioa sustatzea kostatzen zaie. Hala ere, laguntza behar duenean, ez du inolako arazorik eskatzeko.

O.O → Oso ondo

O → Ondo

L.B → Lortu barik